

t tipi t tapa

2001eko azaroaren 15a • XXI. urtea



Kiwi biltzeko garaia ailegatu da **04**


Berez ez da inguru honetakoa baina ongi laketu du, iduriz. Hainbat baserri tan 16 urte daramazkete kiwia produzitzen. Egunotan aritu dira biltze-lanetan.



Zirimolan Kultur Hamabortzaldia **08**

Azkain, Bera, Etxalar eta Sarako 5 elkartek Zirimolan Kultur Hamabortzaldia antolatu dute azaroaren 19tik abenduaren 2ra. Kultur ikusgarri andana aukeran.

03 Sarako arnoa kupelean ontzen ari da





MUE LES
TU tx

Rosa Seminario z/g
Tfnoa eta faxa: 948 450 258
DONEZTEBE

Egurrezko mobletan espezialistak

BULDAIN
agentzia inmobiliarioa

Amazabal, 37 behea • LEITZA
☎ 649 476 615 • ☎ 948 510 534 bulegoa

LEITZAN PISUAK SALGAI

1. Obispo Huarte kalea. Lau logela, bainua, egongela eta sukaldea. Erreforma behar du.
13.000.000 Pta.
2. Manuel Lasarte kalean. Hiru logela, bainua, egongela eta sukaldea. Erreforma behar du.
14.000.000 Pta.
3. Amazabal kalean. Hiru logela, bainua, egongela, sukalde handia, trasteroa eta aszensore berria.
14.500.000 Pta.
4. Amazabal kalean. Hiru logela, bainua, egongela, sukalde handia, bi balkoi. 15.000.000 Pta.
5. Manuel Lasarte kalean. Lau logela, bainua, egongela eta sukaldea, bi balkoi. 16.000.000 Pta.
6. Patxi Arrazola kalean. Lau logela, bi bainu, egongela eta sukaldea, balkoi handia. 18.000.000 Pta.
7. Amazabal kalean (bonberoen ondoko etxean). Hiru logela, bainua, egongela eta sukaldea. Balkoi ona.
20.000.000 Pta.
8. Etxe-Txurin (herriko plazan) duplex-a salgai, berria da, estreinatu gabea:
 - 1. Solairua: Sukaldea, komuna, egongela eta balkoia.
 - 2. solairua: Bi logela, erroperoa, bainua hidromasajearekin.
 Prezioa: Informazio pertsonala.

ARESON

Etxebizitza Berriak eraiki behar dira. Zortzi besterik ez dira.

Eraikitzailea: Pagozelai-Goizabal S.L.

Gerentea: Cristobal Goikoetxea Zabaleta

DATUAK...

• **Fermin Urbistondo Sarako Ihitia baserrian bizi da bere emazte eta lau seme-alabekin. Abeltzaina da eta behi gorriak eta ardiak ditu. Aspaldidanik arnoa egiteko ohitura du. Berak ustiatzen du etxetik hurbil dagoen mahastia.**

• **Ihitia baserrian harrizko tolare zahar bat dute eta denborarekin moldatzea gustatuko litzaioke Fermineri. Tolare ttikian urtero sagarinoa egiten du ere etxean edan edo lagunei oparitzeko.**



Fermin URBISTONDO *Sarako laboraria*

EDURNE ZUBIETA

ELKARRIZKETA

«Jendeak ez du astirik mahastiak hartzeko, ohitura aspaldi galdu da»

RakeI GO I

Noiztik biltzen duzue mahatsa?

Errentan hartu genion ontasuna nau-siari, gero berak atxikitu zuen mahastia eta xahartu zenean berriz utzi zaukun nahi bagenuen segitzeko edo nahi genuena egiteko. Pena ematen zaukun ateratzea, mahastia uztea, eta badu 15 urte segitzen dugula honekin. Urtero etxerako arno pixka bat egiten dugu. Urteak egiten du hemen, mahasti huntan, mahatsa biltzen dela, ehun baino gehiago agian. Guk ez dugu astirik behar den bezala hartatzeko baina ahal dugun bezala moldatzen gara biltzeko. Uzta-ekin bi barrika, bi bordeles egiten ditugu gehienez ere. Mahatsa beltza eta xuria biltzen dugu hemen.

Aurten noiz bildu duzue mahatsa?

Uzta irail hondarrean edo urrian biltzen dugu, urtaldiaren arabera. Aurten urrian bildu dugu denbora ederra zegoelako eta mahatsa ederki hondu zelako. Arratsalde batez biltzen dugu dena eta 4-5 bat pertsona biltzen gara, etxeok eta lagun-terera heldu diren lagun batzuk. Egu-raldiak aurten lagundu du izigarri on-

«**Bereari begiratu bano ez nuke huntan segituko, zinez natura behar da maite segitzeko**»

gi, eta aurten denetan bazen mahats ona. Xuriek ez dute atakatu bertze urteetan bezala, doike auskeri bazi-relako.

Saran oraindik mahatsa biltzeko ohitura bada?

Mahastien ohitura badu bulta bat galdu dela. Jendea hazkuntzari eman zaio eta ez du astirik mahastia hartatzeko. Maitatu ere behar da, gustua behar da. Saran ttikitua da arras, 4 edo 5 mahasti daude bakarrik, orain gaudenak maite dugulakotz segitzen dugu, mahastiek lana bertzerik ez dute ematen eta jendeak nahikoa du berearekin.

Zein da arnoa egiteko prozesua?

Arnoa egiteko mahatsa bildu eta prentsan ematen dugu. Ondotik mahatsa xehatzen dugu eta 10 bat egun atxikitzen dugu. Ondotik tolarean tinkatzen dugu eta azkenik prozesua akitzeko barriketara ematen dugu.

Zuen baserriak berezitasun bat du, zein da?

Lehenengo tolare zaharra dugu baserrian, sagarinoa egiten zuten hemen, harrizko tolare handi bat da. Lurrean sagarra lehertzen zuten mazaorekin gero ardatzekin tinkatzen zuten. Erdian dauden bi zurekin bortxatzen zen goitik, tinkatzeko. Sagar jusa ateratzen zen beheitik zulo batetik askara eta handik ontziekin murruan baden zulo batetik barriketarat, sotorat pasatzen zuten. Orain tolare ttikia erabiltzen dugu bakarrik. Gure tolarean sagarrak lehertzen ezagutu izan dut ttikia nintzelarik, baina ez dut ezagutu lehenengo ardatzik.

Aziendekin lana nahiko baduzu, zertaz segitzen duzu mahastiarekin?

Bereari behatuko bano ez nuke segituko, natura maite dutanez segitzen dut. Natura behar da maite zinez hainbertze lan hartzeko. Ez dakit nola egiten dutan, emazteak aintz laguntzen dit. Pena nuke hainbertze borrokan ibili eta seme alabek guzti hau utziko balute. Pentsatzen dut semeak segituko duela.



RAKEL GO 1

FRUITUAK BILTZERA ATZERRIKO JENDEA ETORTZEN DA

300.000 Kilo kiwi bilduko dituzte azaroan Baztan Bidasoako landaketetan

Duela 17 urte, 1985ean lehendabiziko kiwi landaketa egin zen Baztanen. Zelanda Berritik etorritako teknikariek toki aproposa zela ziurtatu zuten. Gaur egun erabat finkatua dago kiwiaren produkzioa eta Europako herrialdeetara ere esportatzen da Baztan-Bidasoan bildutakoa. 1992an 14 hektarea landatuak zeuden. Aurten 25 inguru dira. Amaiurren, Beartzunen, Lekarozen, Narbarten, Legasan, Donezteben, Sunbilan eta Igantzin daude landareak. Gehienak Kiwi Baztan enpresak ustiatzen baditu ere badira Legasan bi familia euren uzta biltzeaz arduratzen direnak. Atzeritarrak dira batez ere bilketan aritzen direnak.

Rakel Go i

Aurten Baztan Bidasoaldean 300.000 kilo pasa kiwi biltzea espero da 1992an baino 50.000 kilo gehiago. Kiwi Baztan enpresak ustiatzen dituen landaketetan aurten kiwia neurritz txikiagoa dela antzeman dute. Dena den kalidade onekoa izanen da. *'Madril, Bartzelona eta Euskal Herriko hiriburuetan salduko da produkzioa. Iaz Holanda eta Ingalaterrara kiwi txikiak bidali genituen ere, han arras estimatuak direlako* azaltzen du Lander Sagasetak, Kiwi Baztan enpresako teknikariak. Baztan Bidasoaldean 25 hektarea daude landatuak denetara, duela hamar urte baino 10 gehiago, konkretuki Amaiur, Beartzun, Lekaroz, Narbarte, Legasa, Doneztebe, Sunbilla eta Igantzin daude landaketak.

INBERTSIO HANDIAK EGIN BEHAR DIRA

Aspalditik ez da inguruan plantazio berririk egiten, 4 milioi inguru gasta-



tu behar dira hektarea bakoitzarengatik landaketa bat martxan jartzeko. Lehendabiziko 7 urtetan oso fruta gutti biltzen da eta honek jendea atzera botatzen du. Duela 15 urte etorkizun oparoagoa espero zen kiwiarentzat baina prezioa izugarri jautsi denez prebisioak ez dira egi bihurtu. *'Garai batean kiwi batek 90 pezeta balio zi-*

tuen, gaur egun kiloarengatik gauza bera edo guttiago ordaintzen diote produktoreari” aipatu digu Lander Sagasetak.

ATZERRIKO BILTZAILEAK

Kiwi Baztanek 6 aste emanen ditu uzta biltzen. Lan hau egiteko langileak aurkitzea oso zaila zaie eta atzerriko langileak kontratatu behar izan dituzte. Aurten Mauritaniako 6 lagun dauka uzta biltzen. Martxorako fruta guztia saldua egotea espero dute. Azken hilabeteotako idorteak uztari kalte egin badio ere, kiwiaren etorkizuna ona dela uste du Sagasetak.

UZTA BATZUK PARTIKULARREK BILDU DITUZTE

Legasako Juana Mari Indartek eta bere senarrak kiwiz landatutako hektarea t erdiko lur eremua dute Narbarten. Duela 13 urte landatu zuten kiwia, esnetako behiez gain bertze diru sarrera bat izateko. Garai hartan 6 milioi inguru gastatu zituzten landaketa abian jartzeko. Juana Mariren ustez *“lur zati honek behiek baino diru gehiago ematen digu. Landaketa egoki edukitzeko lana aunitz egin behar da, guri Miguel Bertiz doneztebarrak laguntzen digu kimaketa egiten”.*

BI EGUN BEHAR DITUZTE UZTA BILTZEKO

2 egunez hektarea t erdiko lur eremuan izan den uzta bildu dute. Hamar bat lagun bildu ziren, guztiak lagunak eta familiar tekoak izan ziren, *“arras zaila da bertzela bi egunetarako langileak bilatztea”* aipatu digu Juana Mari Indartek. Kiwiaren prezioa saltokietan garesti da-

goen arren, produktoreari 90 pezeta inguru ematen diote. Aurtengo uzta nahiko ona izan da, landareak beti izugarri betetzen zaizkie eta etengabe pisua kentzen joan behar dute, landarea ez erortzeko. 18.000 kilo bildu dituzte eta Tarragonako enpresa batek uzta guztia erosi die. Lehenago ere 26.000 kilo kiwi bildu izan dituzte uzta bakarrean. Fruituak oso desberdinak izan dira aurten bildu dituztenak, batzuk ederrak ziren baina tarteka, kiwi ttiki aunitz izan dira Narbarteko kiwi landaketan.



Donamariako Lander Sagasetak Kiwi Baztan enpresako gerentea eta teknikaria da

LUR EREMU HANDIAK BEHAR DIRA ETEKINAK ATERATZEKO

“Aurreko 4 urteetan lurra errentan ematen genion Kiwi Baztan enpresari, guk lan aunitz genuelako, baina aurten berriz guk hartzea erabaki dugu” adierazi digu Juana Mari. Denetara 1.200 planta dituzte eta ez du uste nekazari bat plantazioarekin bakarrik bizi daite

keenik, beraiek dituzten baino aunitz landare gehiago beharko lituzke. Landaketaekin hasi zirenean irabaziak handiagoak eta lasterrago izatea espero zuten, Juana Mariak azaldu zuenez *“orain kiwi kiloarengatik ordaintzen dena lehen pieza bakarrik balio zuen”.*

KIWIAREN ETORKIZUNA ONA DELA USTE DUTE

Juana Mari Indartek uste du bere semeak plantazioarekin segituko dutela, *“planta bakoitzak 50 urte inguru irauten dituenez oraindik luzerako ditugu kiwiak”.* Eskualdean, jendeak gero eta gehiago estimatzen du kiwia, bitamina aunitz dituen fruta da, halere plantazioak jartzeko orduan, ez da inor auzartzen egin beharreko inbertsioa hagitx handia baita. Aurten eroslea zuzenean etorri zaie, ez dute eroslea bilatzen aritu behar izan. Tarragonako banatzailea arras kontent omen da Narbarten hartzen dituen kiwiekin. *“Kiwiak ez du sekreto handirik. Gure lurra toki egokian dago, goizetik gauera eguzkia ematen diolako. Bertzalde eskualdearen klima hezeak aunitz laguntzen dio. Halere gure fruta ona izatearen arrazoia eguzki izpiak dira nire ustez. Ez dugu ahaztuko ere Migel Bertizek egiten digun lana, urte osoa pasatzen du landareak kimatzen eta behar dituzten zainketak egiten”.*



Legasako Juana Mari Indartek Narbarten du kiwi landaketa. Aurten familiakoak eta lagunak aritu dira bi egunez 20.000 kiloko uzta biltzen.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com/ttppi-ttapa
ttppi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa. **Pre-sidentea:** Pello Apezetxea. **Kudea-tzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuenda-ria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Go i. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Go i.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

• GAURKOTASUNEN GAIA •

Ostatuendako ordutegi berria Nafarroan



Ostatuek ezin dugu deus egin jendearen ohiturak aldatzeko, nik ez ditut aldatu nahi ere, bakoitzak eskubidea baitu nahi duena egiteko

Ketzu Aiestaran Lesakako tabernaria

Normalean lan egiteko margena ortziralean eta larunbat gauetan izaten dugu. Egunez lan gutti egiten dugu, asteburuetakoa lanarekin salbatzen gara aunitzetan. Lesakan larunbata batzuetan giroa dago, bertzeetan ez, baina egiten dugun lan hori, behar beharrezkoa dugu. Guretzat egokiena ordutegi librea izatea zen, beti ere legeak dioen guztia betetzen badugu ordutegirik ez izatea da guretzat onena. Guk molestatzeko ez badugu, eta dena zuzen betetzen badugu nor da nor guri eta klienteei diskotekara edo etxera bidaltzeko. Jendeak nahi duen tokian egon beharko luke, diskotekan, tabernan baina beti eskubide hori errespetatuz. Ezin daiteke dena debekatu. Ordutegi berria jendea eta batez ere gauez gertatzen den guztia kontrolatzeko jarri nahi dute. Euren dominatzen dituzten tokietan eduki nahi dute jendea. Aitzakiak aunitz dira: egiten dugun soinua, kaleak zikintzen direla... halere nik uste dut hau erabateko kontrola lortzeko dela. Beti bezala ordutegi berriak diru gehiago duenaren alde egina dago, diskotekak batez ere. Lesakan laster diskoteka berria egingen da 6 hilabete-tara, momentuz jendea Irun edo Doneztebera lekutzen da. Ostatuek ezin dugu deus egin jendearen kultura eta ohiturak aldatzeko, nik nere aldetik ez ditut aldatu nahi ere, bakoitzak nahi duena egin behar du. Ordutegi berriarekin tabernaren bat itxi egin beharko da. Ostalaritza aste tartean izkin guztietan bajatu da. Taberna aunitz asteburuetakoa egiten duten kajarekin bizi dira. Irabazia hagitz tikiak da ortziralean 4 ordu eta larunbatean antzekoa. Bertzalde, orain ezin dugu aukeratu zertan lan egin nahi dugun, orain arte eguerdian bazkariak ematen zituenak eta gauez kopak zerbitzatzeko zituenak orain bat edo bertzea aukeratu behar du, jatetxea edo taberna. Kategoriaz aldatzea askotan zaila da, batez ere ostatu tikiak direnean. Ate doblea, insonorizazioa, hori ezin da edozein establezimenduan egin. Ez da bakarrik ostatuen afera, jendearen eskubideen urraketa ere bada.



Europan bezala jarriko gara: ostatuak goizago itxi eta guztiak diskotekara

Juan Mari Apeztegia Doneztebeko Tabernaria

Legedi berria martxan jartzen bada ordu bat goizago itxi beharko dugu larunbatetan, goizeko bi terdietan itxi egiten dugu orain, baina gero ordubata terdietan ixtera behartuko gaituzte. Hori kolpe gogorra izanen da tabernariontzat, lan gehien egiten den ordua baita. Guk txip-a aldatu beharko dugu eta jendearen txipa ere aldatu beharko da. Nire ustez, orain arte egon den ordutegia egokiagoa zen. Bar, disco-bar, bar-restaurante... izendapen ezberdinak paratu dituzte, baina azken finean zerga gehiago ordainarazteko modua bertzerik ez da. Denbora gehiagoz irekia izan nahi baldin baduzu, izendapena aldatu eta diru gehiago ordaindu beharko duzu: gaur egun diruarekin dena konpontzen da. Ostatuen etorkizuna luzera begira gaizki ikusten dut. Lege berri hau oraindik ez dutela jarriko uste dut, baina azkenean Europen bezala paratuko gara: ostatuak goizago itxi eta jende guztia diskotekara. Orain dauden ostatuen erdia desagertzea ekarriko du horrek, hori aisa.




Ordutegi berria onartzen bada taberna batzuk itxi beharko dira

Mikel Zabaleta Leitzaiko tabernaria

Ordutegi berria onartzen bada askoz lan gutxiago egingen dugu. Leitzaan asteburuetakoa asko egiten da, jendea kanpora joan beharrean herrian gelditzen da. Tabernak 1.30etan ixten baldin badira gazteak herrietik kanpora bidaliko dituzte. Leitzaan larunbatetan gaueko 12etan ateratzen da jendea eta giroa sortu orduko 1.30ak dira. Diru galerak handiak izanen dira, aste tartean ez da jende gehiegi ibiltzen eta askok asteburuetakoa irabazten dutenarekin bizi behar izaten dute. Tabernen araberrako ordutegia egin beharko litzateke. Guk adibidez astez lan asko egiten dugu, asteburuetakoa, gauean ez hainbeste, baina beste batzuei kontrako gertatzen zaie. Garbi dago ordutegi berria diskoteken alde egina dagoela, hirietan dauden diskoteken alde hain zuzen. Herri tikietan ez du zentzurik larunbatetan 1.30etan ixtea. Ordutegi hau onartzen bada tabernaren bat itxi beharko dute, asteburuetakoa kaja beharrezkoa baita askorentzat. Nire ustez jendeak ohitura finko batzuk ditu eta hori aldatzea oso zaila izanen da.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra, 01eko azaroaren 6a

'Bulego batean nuen lanbide finkoa utzi eta argazki denda paratu nuen duela 25 urte. Arrisku handiko aldaketa izan zen, baina ez naiz inoiz damutu, gustatzen zaidana egiten dudalako'.

Martin GOIKOETXEA
Berako argazkilaria
D.Navarra 01-11-06

'Buruz buru lortutakoari segida eman diot denboraldi honetan eta oso pozik nago. Bikoteka uda

osoan goian egon naiz eta enpresak lehen mailako partiduetan jarri nau. Horrek morala ematen du gogor entrenatzen segitzeko'.

'Errandonea lehen mailako pilotaria da, zalantzarik gabe, binaka, buruz buru eta baita lau terdian ere. Gainera artista da eta tantua bukatzeko baliabide ugari ditu'.

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
D.Noticias 01-11-07

• 11 GALDERA LABUR •



Benantxio ELIZAGOIEN *Etxalarko baserritarra*

¥ Zer da zure buruan gehien gustatzen zaizuna?

Nere egitaiak, izaera.

¥ Norekin pasatuko zenituzke gustora solasian pare bat ordu?

Zurekin.

¥ Nork erosten dizkizu kantzontziloak?

Andriak.

¥ Ikustezina bazina zein izanzen zen eginen zenukeen lehendabiziko gauza?

Emakumin komunetan buelta bat eman

¥ Etxe rural baten jabe zara. Turistek atzendu duten gauzen bat...

Behin baino gehiagotan maindire tar-tean arropa tikiak.

¥ Etxalarko alkate bazina zer eginen zenuke?

Baserrietako bidiak zabaldu.

¥ Fabrikako lana edo baserrikoa?

Baserrikoa baina fabrikako jornalarekin.

¥ 15 eguneko bidaia ordaintzen dizute, nora joanen zinateke?

Arjentinara. Bertan ditudan eta izautzen ez ditudan lehengusuak bisitatzera.

¥ Ardoa egitea edo edatea?

Edatea dudarik gabe.

¥ Udazkenaren etorrerarekin 12 kilo gizendu zarela erran digute, egia da hori?

Ez, ez nauzu begitu bertzerik egin bihar.

¥ Zer izan nahi duzu haunditzian?

Gehio ez naiz haundituko, hemendik antzinera zahartu eginen naiz.

ANTZUZELAI S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Maziza
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Iturlandeta, 6 • 948 63 02 40 • BERA

J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

948631342 BERA • 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • 948 637 503 • LESAKA

KULTURA

Zirimolan kultur hamarbortzaldiko ekitaldi andana Azkain, Bera, Etxalar eta Saran

‘Euskaraz erausian, eskuaraz solasean’ leloarekin azaroaren 19tik abenduaren 2ra

ttipi-ttapa

Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxata eta Sarako Gaztetxea elkarteak biltzen dituen Zirimolan taldeak Kultur Hamarbortzaldia antolatu du aurten ere, Eusko Ikaskuntza, Euskal Kultur Elkarte eta Azkain, Bera, Etxalar eta Sarako Herriko Etxeen laguntzaz. Azaroaren 19tik abenduaren 2ra egingen diren ekitaldiek ‘Euskaraz erausian, eskuaraz solasean’ leloa izanen du. Gaia hautatzeko tenorean, Zirimolan taldeak kontuan hartu du aurten Europako Hizkuntzen Urtea dela. Ildo horretan, Zirimolan bera euskara sustatzen ari dela uste dute antolatzaileek, *‘herrien arteko harremanak bulztatuz bere inguruan’*.

EUSKARAREN EGOERA MINTZAGAI

Kultur Hamarbortzaldiaren egitaraua hasteko, ‘Euskara European’ mintzaldia eskainiko du



Xirristi Mirristi taldearen ‘Lamintegiko Laminak’ antzezlanaren ikusgai izanena abenduaren 2an Saran.

Koldo Gorostiaga europarlamentariak azaroaren 19an, asteartez, arratseko 8etan Etxalarko batzar aretoan. Azaroaren 20an, asteartez, 8etan ‘Euskaldunak munduan’ mintzaldia eskainiko dute Fermín Munariz eta Martín Garitano kazetariak Berako lamotenean.

Azaroaren 22an, or-

tzeguna, euskararen egoera Nafarroan aztertuko du Andres I igo euskaltzainak Azkaingo Bil Tokin, arratseko 8,30etatik aitzinera.

Azaroaren 23an, ostiralez, kontzertuak izanen dira Beran. Arratseko 10etan Kematxe hardcore taldea izanen da Bidaxka ostatuan, 11etan Irats triki pop tal-

dea Zizka ostatuan eta 12etan Kontuz taldea (rural kord) Pui ostatuan.

Azaroaren 27an, asteartea, euskararen osasunari buruz solasean ariko da Koldo Zuazo erakaslea Sarako Herriko Etxean, arratseko 8,30etan.

Azaroaren 30ean, ostiralez, 9etatik aitzinera arratsa izanen da Az-

kaingo Bil Tokin. ‘Usoa’, ‘Hauspo soina’ eta ‘Bertzea’ filmelaburrak ikusgai izanen dira, Bertizko Turismo Partzuergoaren eskutik.

Abenduaren 1ean, larunbatez, arratseko 9etan bertso afaria izanen da Etxalarren. Manolo Arotzena gai-jar-tzailearen erranetara Xumai Murua, Miren Arretxe, Eneritz Zabaleta eta Joxe Juan Zubieta ‘Etxabe’ bertsolariak ariko dira. Kuxkuxtu txarangak ere alaituko du afaria. Txartelak salgai izanen dira azaroaren 16tik 28ra lau herrietako ostatuetan, 2.500 pezetaren truke (100 libera-
ra).

Abenduaren 2an, igandez, arratsaldeko 4etan, Xirristi Mirristi taldearen ‘Lamintegiko Laminak’ antzezlanaren ikusgai izanen da Sarako Omordian. Antzezlan honek 2000. urteko Donostia Hiria saria irabazi zuen. Sartzea 750 pezeta (30 libera).

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735

ZUBIONDO

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: 948 637 266

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

LABEAK

☎ 948631076 • BERA

BERA

Imanol Larrañaga libre utzi dute bi milioi pezetako fidantzapean

Eneko Zestau eta Xabi Resano gazteei launa urteko zigorra jarri diete

Asier GOGORTZA

Joan den asteko asteazkenean, azaroaren 7an, utzi zuten libre Imanol Larrañaga Berako gaztea, bi milioi pezetako fidantzapean. Ordainketa egin ondotik, arratsaldeko 19:30etan ateri zen Aranjuetzeko gartzelatik, eta han zain zituen senideekin itzuli zen herrira. Beran ehun lagun inguruk ongi-orrria egin zioten goizaldekoko ordubata aldera. Lagunak eta senideak agurtu ondotik, aurrerakua dantzatu zioten bi dantzarik, eta segidan hiru bertsolarien bertsoak aditu zituen Larrañaga. Gero, preso ohiak esker oneko solas batzuk egin zituen han bildutako jendearen aitzinean.

Aurtengo martxoan atxilotu zuten Larrañaga, Bixente Goia, Jose Esteban Alzuguren eta



ASIER GOGORTZA

100 lagun inguru bildu ziren Imanol Larrañaga ongi etorria egiteko.

Kotto Alzugurenekin batera. Azken honek Navalcarmeron segitzen du.

Eneko eta Xabiri lau urteko zigorra

Bertzalde, urriaren 23an Eneko Zestau beratarra eta Xabi Resano bere lehengusu iruini-

darra epaitu zituzten Madrillgo Entzutegi Nazionalan. Epailak launa urteko zigorra ezarri die bi gazteei kutzazain automatiko bat erretzen saiatzeagatik.

Bera eta Iru atik senide eta lagunak betetako autobusa joan zen Madrilera epaiketa ikus-

tera, baina gehienak atarian gelditu ziren, hama bortz laguneri bakarrik eman baitzioten sartzeko baimena. Izan ere, Entzutegi Nazionalak dituen bi geletako ttikienan egin zuten epaiketa, nahiz eta gela haundiko epaiketara arrot jende gutti joana zen.

FLASH

Lanak egin nahi eta ezin

Udalak zenbait lan egiteko proiektuak ateri ditu lehiaketara, hala nola pisinako depurazio sistema berritzea, Zalaingo parke eta frontoia egitea, kiroldegi kanpoko terraza estaltzea eta haurtzaindegia eraikitzea, baina lehen deialdian bederen ez da enpresarik agurtu lan horiek egiteko prest. Harene, lan gehienak laster adjudikatzen moduan direla aipatu digute Udaleko arduradunak.

Internet zerbitzua liburutegian

Udal liburutegian ordenagailua jarri dute Internet-en sartu nahi duten herritarrek aukera izan dezaten. Asteartez arratsaldeko 3etatik 9etara eskura dago ordenagailua, eta txandak ordu erdikoak izanen dira. Lehendik eskatzen ahal da ordua, baina gehienez ere astean bi ordu.

Kultur Zirimola

Aurtengo Kultur Zirimolak berriz ere ekarriko ditu kultur haize frexkoak. Hasteko, berriki munduari itzulia eman dioten Gara egunkariko bi kazetariek solasaldia eta diapositiba emanaldia egingen dute azaroaren 20an Jamotenean, arratsaldeko 8etan. Bertzetik, urteroko gisan, Zizka, Bidaxka eta Pui ostatueta kontzertuak egingen dira azaroaren 23an.

KONTZERTUA

Josetxo Goia-Arriben saxofoi jolearen kontzertua larunbatean Kultur Etxean

Larunbat honetan, azaroak 17, Josetxo Goia-Arriben musikariak eta Ensemble taldeak emanaldia eskainiko dute Kultur Etxean,

arratsaldeko 8etan. Saxofoi jolea eta konpositore iruindarrak (familia beratarrekoa) musika tradizionala hartzen du lan gehienak egiteko.



ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

URRUKA-SORRITZA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

LESAKA

Oihanzain arduradun berriari ez zaio euskaraz jakitea eskatuko

Nafarroako 680 kiloko sokatira txapelketa jokatu da larunbatean

Aitor AROTZENA

Urriko azken udal batzarrean, oihanzain arduradun lanpostu berria sortzea erabaki zuen Udalak. Albinte lanpostua betetzen den bitartean, honi dagozkion betebeharrak batzuk ere egiten ditu oihanzainak. Langile honek bete beharreko hizkuntz gaitasunari buruzko eztabaida piztu zen batzarrean. EHren ustez, langile hau euskalduna izatea "nahitanahiezkoa" izan beharko litzateke bere lana ongi betetzeko. Alkatearen ustez, ordea, lanposturako lehiaketan euskarari ematen zaion balorazioa handia da, "30 puntutik 15. Gaztelera jakitea, ordea, ez da puntuatzen eta euskara ez dakien injinari batek 10 puntu bertzerik ez litzuzke jasoko". EHren ustez, "oihanzainak gaztelera jakinen duela gauza segurua da, espainola ez dakien injinari frantses batek ez luke aukerarik izanen".

Euskarra Nafarroan solasaldia Arranon

"Euskararen historia eta gaur egungo egoera Nafarroan" gaiari buruzko solasaldia eskainiko du Erlantz Urtasun historialari eta kazetariak azaroaren 23an, ortzirala, arratseko 7,30etatik aitzinera Arrano elkartearen. Elkarrekin berak antolatuta du ekitaldia, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.



ARTXIBOKOA


Nafarroako 680 kiloko sokatira txapelketa jokatu da larunbat honetan, azaroak 17, arratsaldeko 4etatik aitzinera udal pilotalekuan. Beti Gazte azken bi urtetan lortutako txapela mantentzen saiatuko da Txantrea, Imotz, Berriozar, Ezkabaondoa eta Armonia Txantreana taldeen aurka. Aresok ez du aurtengo txapelketan parte hartuko, beraz, lesakarrak izanen dira faborito nagusiak. Hurrengo asteburuan 640 kiloko saioa izanen dute Atarrabian.

ERAKUSKETA

Kepa Pikabea presoaren margo erakusketa zabalduko da Arranon

Azaroaren 20tik abenduaren 2ra zabalik izanen da Arrano elkartearen Kepa Pikabea margolariaren espertxeko erakusketa. Ostaturako irekia dagoen egunetan, arratsaldetan ikusgai izanen da erakusketa, areto nagusian. Kepa Pikabea

lesakarra da sortzez, Morroneko Bordakoa eta Ere ozun bizi zen, atxilotu zuten arte. Gaur egun Frantzian dago espertxeratua. Klase guzietako gaiak margotzen ditu. Arranon zabalduko den erakusketan ehizarekin lotutako gaiak ikusiko dira gehien bat.



ARTXIBOKOA

Ehiza gaiekin lotutako margolanak zintzilikatuko dira batez ere Arranoko erakusketan.

FLASH

Mololo Irigoien eta Xabi Zozia Europako txapelketa

Frontoi laburrean, Klub arteko Europako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren urriaren 28an Frantziako La Fitole herrian, Tarbes inguruan. Eskuz banaka, Mololo Irigoien lesakarrak txapela eman zion Paz de Ziganda taldeari, final ederrean Oinatz Bengoetxea leitzarrari (Alsasua) 22-20 irabazi ondok. Bi finalistak heldu den urtean Iru ean jokatu den Munduko txapelketan eskuz banakako ordezkari izateko borrokan ari dira, beraz, aski gustora gelditu da Mololo txapelarekin. Pala motzean, Oberena taldean ari diren Xabier Zozia lesakarra eta Txiki izan ziren garaile, finalean Seig-Maus taldeko bikote frantziarrari 40 eta 27 irabazi ondok. Zoziaik partidu ikaragarria jokatu omen zuen, adituen erranetan.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
☎ 948 637826

ANNA
Bittiria 41 • ☎ 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
☎ 948627573 • LESAKA

ETXALAR

Zirimolan Kulturaldiak hitzaldia eta bertso-afaria ekarriko ditu herrira

Herriko pilotari gazteak Belate ligan parte hartzen ari dira

Joseba eta Nerea

Azken hiru urteotan bezala aurten ere Askain, Sara, Bera eta Etxalarren arteko harremanak sendotzea helburu duen Zirimolan kultur elkarteak bi ekitaldi prestatu ditu Etxalarrerako. Lehenbizikoa azaroaren 19an, astelehena, izanen da udaletxeko batzar-aretoa. Koldo Gorostiaga EHko europarlamentariak hitzaldia eskainiko du Euskara Europan gaiaren inguruan. Abenduaren 1ean, larunbata, bertso-afaria izanen da Antton Mirentxu, Joxe Mari Murua, Eneritz Zabaleta eta Joxe Juan Zubieta Etxabe bertsolariekin, Manolo Arozena gai-jartzailaren agindupean. Giroa alaitzen iparraldeko Kuxkuxtu txaranga arituko da. Txartelak Herriko Ostatuan daude salgai.

Belate liga

Aurtengo udazkenean herriko pilotari gazteenak Nafarroa maila-



JOSEBA OLAGARAI

Etxalarren trikitixarekiko dagoen zaletasuna ikusirik Jone Elgorriaga lesakarra klaseak ematen hasi da. Argazkian ageri den haur-koadrila hau astelehenero biltzen da eskola zaharretan ordu beteko txandatan eta trikitixa ikasteaz gain, kriskitinak jotzen eta kantatzen ere ikasiko dute. Pandereta klaseak berriz, iaz aritu zen Nagore Antsalasen eskutik joanen dira aurten ere. Azaroaren 9an hasi zituzten klaseak eta hauek ere pandereta ikasteaz gain kantuan ere aritzen dira.

ko Belate ligan parte hartzen hasi dira. Bigarren urtea da Isidoro Gallard n eta Joxe Mari Maia herritarrak pilota erakusten ari direla eta aurtengoan pilotarekiko afizioa bultzatu nahian txapelketa honetan ari dira. Bi entrenatzaileek ai-

patu digutenez 'txapelketa honek haurrak motibatzen eta modu batean pilotaren munduan gehiago sartzeko balio du. Ez dakigu etxalartarrok zein emaitza lortuko dugun baina momentuz behintzat gustora gaude'. Parte har-

tzen ari diren bikoteak 5 dira hiru mailatan baturik: infantilak (12-14 urtekoak) 2 bikote, alebinak (10-12 urte) bertze 2 bikote eta benjaminak (8-10 urte) bikote bat. Astebururo jotzen dituzte partidua zonaldeko 4 frontoietan.

FLASH

Xorroxin Irratia Landagain eskolako ikasleekin

Zonaldeko bertze ikastetxeetan Xorroxin irratia urteroko bisitaldia egingo du eta Landagain eskolari azaroaren 12tik 16ra doaien astean tokatuko zaio txanda. Eguneroko lanak alde batera utzi eta eskolako haurrak irratia munduan sartuko dira. Prestatu dituzten saioen gaiak hauek dira: Landa etxeak (Agustina Goienetxe izanen dute solaskide), Lorpén (Jose Manuel Vicenseren eskutik), Etxalarko Web orria (Isabel Elizalderen laguntzarekin) eta Kirol Berriak: Rugby (zehaztugabea). Beraz badakizue, aste honetan 107.9 frekuentzia paratu, mereziko baitu!

Uso-Jatea Larraburuan

Hirugarren urtez segidan Etxalarko jubilatuek elkarteak uso-jatea egin zuen azaroaren 4an Larraburua egoitzan. Hirutan hogeita lagun inguru bildu ziren Anttoniok prestatutako otorduz gozatzerako. Bazkalondotik Josetxoren musikaren eritmorra egin zuten digestioa. Heldu den urtean, berriz errepikatze prest daude.

LESAKA

E T X A L A R R A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

bortzIRUDI

BERA

ESTAGARRA 26 BEHEA Tel.- Fax: 948 63 15 21

XATURETXEA

ZABAL JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE

ERRETEGIA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

IGANTZI

Herria ezagutuz

Argazkiak izanen dira Kultur Egunetako erakusketaren gaia

Bertzalde, Natalia Rodriguez izanen dugu behin behineko idazkaria

Oskar TXOPERENA

Amatasun baja dela eta, M» Jose Larraiotz idazkaria ez da zenbait hilabetez lanean ariko. Hori dela eta, behin-behineko idazkaria aukeratu behar izan dute, horretarako beharrezkoak diren frogak egin eta gero. Bada, Natalia Rodriguez Aguado gelbentzuarra izanen da Igantzi eta Arantzako lanpostua beteko duena. Bitartean, zortetik hoberena opa diogu M» Joseri.

Errolda berria

Arantzan hasia duen lagun berak, Jose Ignacio Fagoagak, egin behar omen du Igantzin ere etxe eta biztanleen errolda berria. Hasiera batean etxe guzietan betetzeko orriak zabalduko dira eta gero pasatuko omen da langile hau informazioa ematera eta behar den guziaz argitzera. Ez da aukera txarra datu guziaz behar bezala paratzeke.



OLAETXEAKO EK UTZITAKO ARGAZKIA

Dagoeneko hasia izanen dute Igantziko Biltokiko Juntako kideek abenduaren 8an eginen den erakusketarako argazki bilketa. Abenduaren 2a izanen da argazkiak biltzeko azken eguna eta edozein gairi lotuak hartzen dituzte: etxeak, kirolak, i auteak, bestak, etxeko ospakizunak, lantegiak, etabar. Ez omen dute gainera nahitanahiez hagitz argazki zaharrak izan behar. Anitz estimatuko luke jendeak Berrizaungo eskol-atarian 1947-48an ateratako argazki hau bezain politak ikusterik baluke. Badakizue, eman kajoi zaharrei dardarialdi bat, etxe gehienetan baitaude horrelakoak. Eta erakusketa egunean, hurbildu denak ikustera.

Arazaok erlojuarekin

Ez dute Arantza eta Igantziko erlojuen sistema berriek emaitza

izugarri eman. Aitzin horretan Arantzan arazoak zeuzkatela jakin genuen eta kronika hau idazterakoan egunak

daramazki Igantzikoak gelditurik.

Anitzetan horrelako kontuak dakarzki modernidadeak.

948630052 • Zalain • BERA

948 63 11 88

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516


HORTZ KLINIKA
Dr Guy Cadillon
3 dentista espezialidade guzietarako

HORTZ ESTETIKA
IMPLANTOLOGIA (20 urteko esperientzia) ¥ ORTODONTZIA

Berrizaungo

Telleria

Herri gehienak bezalaxe, Igantzik ere izaten zuen telleria (Telleria edo Tejeria). Teilak eta ladriloak egiteko erabiltzen ziren eta Berrizaungoaren jabea, XIX. mendearen hondarraldera arte, erori zen arte, Herrikoetxea izan zen. Bidasoako zubiaren ondoan zegoen kokatua, Molinea etxearen parean, errepi-dearen bertze aldean. Goiko grabatuan ikusten denez, guttienez XVII. mendekoa zela badakigu, nahiz eta seguruenik anitzez lehenagokoa izan. Bertako ekoizpen gehiena herriaren beharretarako izaten zen, bai Herrikoetxearen erai-kinentzat (Bi Herrikoetxeak -zaharra eta berria-, Berrizaungo ola, eliza, errota, Piedadeko baseliza,), eta baita etxe partikularrentzat ere. Ez zen izaten Igantzin, ordea, egosteko moduko lur egokirik eta etxalartarekin moldatzen ziren 1843ko dokumentu honetan ageri den bezala (36/4): "La Villa de Echalar permitir a la de Yanci la estracci n de tierra de arcilla para teja (...). Los de Yanci permitir n a los de Echalar piedra caliza para la carretera y caleras".



ARANTZA



TTIPI-TTAPA TB

Aziendek ere euren protagonismoa hartu zuten Baserritarren Egunean: behorrak, ahariak, akerrak, ardiak, ahateak, oiloak, astoak Aberezainek ahaleginak egiten dituztela garbi gelditu zen.

FLASH

Idazkaria

Joan den aste hasieratik, azaroaren 5etik, idazkari berria dugu Herriko Etxean. Maria Jose Larraiotzen amatasun baja betetzeko deialdiko hautaprobak egin ziren eta Natalia Rodriguez Aguado gelbentzuarrak eskuratu du lanpostua. Hurrengo hiru hilabete terdian idazkari lanean ariko da Arantza eta Igantziko udaletxeetan.

Kulturaren topaleku arrakastatsua izan da herria azaro hasieran

Baserritarren Egunean frontoia azoka jendetsu bilakatu zen

Nerea ALTZURI

Pasatu berri da tenore honetan herriko erakunde ezberdinek urtero antolatzen duten kulturaldia. Domisaindu eguneko astehondar luzea betea eta jendetsua izan zen, kultur egunak ederki pasatuz. Herriarren eta bisitarien par-

tehartzea haundia izanik, azaroaren lehenean Baserritarren Egunearen zazpigarren edizioa ospatu zen. Eguraldi garbi eta frexkoak, azoka bihurtutako pilotakura eraman zuen jendetza goxotasun eta babes bila. Izan ere, ez zen aukerarik falta herriko artistek osatutako 42 erakusleketan: baserriko produktuak eta tresnak, gozokiak, opilak, loreak, eskulanak Etxeko xokoak hornitzeko, sabela betetzeko eta zintzurra bustitzeko moduan izan zen gerturatutako lagun andana. Baina azokaren

sarreran ere, azienda ederrak ikus zitezkeen, tratuan aritzeko tentagarri.

Bazkaldu aitzinean baserriko produktuekin osatutako zarea zozketatu zen. Maria Teresa Graner herritarrentzat izan zen zarea. Bertalde, Nafarroako Ku-

txak zozketatutako entziklopedia Eguzkialdeko Iturtzenekoborda baserriko erakustokiari egokitu zitzaion. Ondotik, ehun bat lagun bilizu den Zahar-Txokon bazkaltzeko. Eta bazkalondoa Mendizabal eta Zeberioaren bertso eta herriko soinularien animazioarekin alaitu zen. Honela akautu zen urtetik urtera lagun gehiago erakartzen den eguna.

Jakoba Errekondok biharamunean eskainitako solasaldia ere interesgarria izan zen. Ekaitza elkartean hiru orduko hitzaldia eskaini zuen, baratze, landare eta fruituei buruz. Larunbata eta igandea, batez ere, haurrentzat izan ziren: tailerrak, berrendua, zinea Azaroaren 3an Jon Bergaretxeren kantaldia izan zen.



MARTIKO
Gure baserrietako produktuak

☎ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

ALBERGEA JATETXEA
☎ 948 634179
ARANTZA

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

616 513 497
Piti
ESKABAZIOAK
C/Arretilla
31740 DONOSTIA (NAFARROA)

DONEZTEBE

Mikel Mindegia omenduko dute feria eguneko herri kirol saioan

Gazteen txapelketa eta Nafarroa-Gipuzkoa desafioak jokatu dira

ttipi-ttapa

Azken urteotako ohi-turari eutsiz, aizkora saio ederra ikusteko aukera izanen da Doneztebe-ko feria egunean, azaroaren 16an. Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketa nagusiak dagoeneko jokatuak baldin badira ere, ortziral arratsaldeko 5,30etatik aitzinera udal pilotalekuan plantatuko den ikuskizuna ez da nolana izanen. Lehenik, 18 urte arteko aizkolari onenak bilduko dituen Euskal Herriko gazte mailako txapelketa jokatu da. Leitzako Jon Rekondo eta Beintza-Labaiengo Javier Mindegia izanen dira eskualdeko ordezkariak eta beraiekin batera, Sakanako David Amillano eta Eneko Larrion, Bizkaiako Unai Aldapa eta Gipuzkoako Ugaitz Murgertza lehiatuko dira.

Gazteen txapelketaren ondotik "xaharra" omenduko da. Hainbat urtetan Euskal Herrian eta Nafarroan txapeldun



ARTXIBOKOA

Aizkora zaleen omenaldia jasoko du feria egunean Mikel Mindegia haundiak.

izan den Mikel Mindegia omenaldia eskainiko zaio. Jakina denez, aurtengo txapelketa ofizialak uzteko erabakia hartu du Ezkurran sortu eta Zubietan bizi den aizkolariak. Malerreka eta inguruetako aizkora zaleek berak eman dituen une ederrak sa-

ritzeko aprobetxatu nahi izanen dute.

Baina omenaldiarekin ez da aizkora arratsaldea akituko. Ondorik, Nafarroa eta Gipuzkoako aizkolarien arteko desafioa ikusgai izanen da. Nafarroako ordezkari gisara, Donato Larretxea, Floren Na-

zabal eta Joxe Juan Barberena ariko dira. Gipuzkoarekin, Joxe Mari Olasagasti Euskal Herriko txapeldun berria, Pe agarikano iazko txapelduna eta Arria Va gaztea ariko dira anaka, binaka nahiz hiru-naka, proba ezberdinetan.

ITUREN

Herriko Ostatura moldatzeko lanak enkantera

Iben ISASI

Iturengo Herriko Ostatura moldatzeko lanak enkantera eman ditu Udalak. Maite Apeztegia Elso arkitektoak idatzitako proiektuak 6.498.540 pezetakoa da (39.057,01 €), BEZa barne. Proposamenak udal bulegoan aurkezteko epea azaroaren 28ko eguerdiko 2etan akituko da. Biharamonean irekiko dira proposamenak, eguerdiko 1etan.

Heldu den urteko uraren prezio berriak

Iturengo Udalak urteko 6.156 pezeta kobratuko ditu heldu den urtean, etxe bakoitzeko ur kontsumoaren truke, batzarrean erabaki zenez. Ostaturek horren bikoitza ordaindu beharko dute, 12.313 pezeta eta Latsaga auzoko etxeek, aldiz, 998 pezeta bertzerik ez dute ordainduko urtean.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

SAROBE

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



☎ 948631106

☎ 948 630967

Zalain • BERA

Azaroan ehizi Menu bereziak:
3.700 pezeta (ardoa eta BEZa kanpo)

BEINTZA-LABAIEN / SALDIAS / ERATSUN

Eskoletako irakasleek Hezkuntza Sailarekin bildu nahi dute

Beste eskoletan dituzten lan baldintzak lortu nahi dituzte

Mikel ILLARREGI

Saldias, Eratsun eta Beintza-Labaiengo irakasleak, Iturengo eskolakoekin batera hilean behin biltzen dira eskolako edukiak eta programazioa eztabaidatzeko eta esperientziak amankomunean jartzeko. Horretaz gain, azkeneko bileretan eskola txiki hauetako etorkizunaz eta egun dituzten irakaskuntza baldintzak aztertzen aritu dira. Azaroaren 14an eginiko bileran guzti honen berri azaltzea eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduak zer nolako jarraiera duen jakin eta eztabaidatu asmoz, Felix Otano zonaldeko ikuskariari gutuna igorri diote, bilera eskatuz. Eskola hauekiko tratamendua berezia behar dela izan garbi ikusten dute, besteek dituzten lan baldintza berdinak lortu nahi badira behintzat.

Eskola ateraldia

Azaroaren 6an, hiru eskolako 24 ikasle eta irakasleak Donostia aldera jo zuten egun-pasa aprobetxagarria egin nahian. Goizean, Miramongo Kutxaespazio zientzia museo bisitatu zuten eta bertan esperientzia berriak probatu ahal izan zituzten. Arratsaldean, Aquarium-ean sartu ziren. Kolore, forma eta itxura guztietako arrainak eta uretan bizi diren izakiak ikusi zituzten. Ondoren denak pozik itzuli ziren etxera.



Zur zetz k fex k e r k h r n

ENTSI LN K

Zur zetz k fex k e r k h r n
 n z z s r r a n t l c r f x t z u z h r n
 ur l k u t x k n t s l n t l l h m l 5 l n
 m r r n u r u r u z u h

z n h n t z n n m k n t s u n r r s m
 t 7 t r e k u r r z n f s k l z e k u r u z u
 t a n y n n c a r l l a s u n h n n t l n t t u
 r z n l t z u n e r y h l n r s t u r

Z e z u r l k u t x r t u k r u z u r z e z k l n .

G r u • G t E r r n t F a k • G M s c
 G H r u M s t 7 5 • G L u E r r n t l k r r

E t r n , n u r n
 3 l e r t , s k u l k
 r r m n n
 u z u z u r l n
 k n t r l z e r k n .



www.nafarroa.net

G r u n t z l s u
 z u z k

NAFARRAK
 ROR L KUTXA

GOIZUETA

Goi mailako ekitaldiak Gaztetxearen hamargarren urteurrena dela eta

Azaroaren 24ean Lau Itzal, Asgarth eta Betagarri taldeen kontzertua izanen da

Esteban AROTZENA

Gaztetxeak aurten hamar urte bete dituela aitzakitzat hartuta, hagitx ekitaldi interesgarriak antolatu dituzte herriko gazteek hil honen 23 eta 24rako.

Ostiraletik hasiz esan, Incansables txar-rangak ikuskizun berezia eskainiko duela ilunabarreko 8etan eskolataro jangelan. Aurretik kalejira ere izanen da. Ondoren, berriz, tragoxka pare bat hartuta-

koan, koadrilen afaria eginen da Umore Ona elkartean. Gaztetxe-ek antolatua baldin bada ere, edozein adineko jendea agertzea espero eta nahi omen dute. Afalondorea ere ez ohikoa izanen da, Eriz mago ezagunak bere ikuskizuna eskainiko baitu afaltiarren gozamenarako.

Dena den, hamargarren urteurren honen barreneko ekitaldirik garrantzitsuena larunbat



ESTEBAN AROTZENA

Azaroaren 1erako ederki aski apaindu zuten herriko kanposantua. Jendea eruz igaro zen bertatik egun osoan.

gauean frontoian burutuko den kontzertua izanen da. Bertan joko dutenak Lau Itzal, Asgarth eta Betagarri taldeak dira. Lehen lekuan aipatutako talde hau Kashbad, Sen eta Etzakit-eko (Xabier Solano) musikoek osatu berria dela, diska bat ere grabatu dutelarik dagoeneko.

Asgarth-i buruz esan behar da, bere azken emandialdia izanen dela Goizuetakoa, talde desegitea erabaki baitute arogatarrek. Interes asko du, beraz, hilaren 24ko kontzertu honek.

Ur eta zabor tasak goiti

Ura eta zaborren tasei

2002. urterako KPI gehitzeko erabakia hartu zuten Udalak bere azken batzarrean. Saneamendu kanona eta gainerako zergak bere horretan mantenduko dira, ibilgailuena izan ezik, Nafarroako Gobernuak agintzen dituen tarifak erabiliko baitira horretan.

ARESO

Zubiberrietako zubia eta Napoleon Bidea konpondu dituzte

Autobus geltokia egiten hasi dira

Juana Mari SAIZAR

Autobia egiterakoan hainbat kaltetu suertatu ziren eta orain berriro azken konponketak egiten ari dira. Kaltetu gehienak partikularrak dira, baina herriko bide bat, Napoleon bidea hain zuzen ere, eta Zubiberrietako zubia konpondu dituzte.

Autobus geltokia egiten hasi dira

Autobus geltokia egiten hasi dira azkenean. 2000. urtean, Nafarroako Gobernuak hartu zuen kontratistak hondo jo zuen joan den urteko irailean, eta orain, 2001. urtean, Lekunberriko eta Aresoko geltokiak egiten hasi dira.



ARTXIBOKOA

Nafarroako sokatira txapelketan ez da honelako irudirik ikusiko aurten, Aresoko taldeak ez baitu parte hartuko.

Gaztain biltzea eta jatea eskolan

Guraso Elkarteak gaztain biltzea antolatu zuen urriaren 26an herriko umetxoekin eta hu-

rrengo astean gaztain jatea, txistorra eta odolkiarekin, osatu zuten.

Pinudia enkantean

lertza Haundi inguruan,

autobide gainean dagoen pinudia enkante-ara aterako du Udalak. Douglas izei ikaragarri ederrak daude eta diru dexente hartzea espero dute.

LESAKAKO

FERIAK

AZAROAREN 21 eta 22a



Bortzirietako azienda onenak sarituko dira

¥ Ortegungo goizeko azienda lehiaketan zaldiak nagusitu dira urteotan
¥ Asteazkeneko Merkatu Egunean ajoarriero lehiaketa eta trikitixa

Udazkeneko azken ferien txanda ailegatu da. Azkeneko bortzehun urteotan bezala, Bortzirietako feriak egingen dira Lesakan. Asteazkenean, azaroaren 21ean, Merkatu Eguna egingen da. Ez da azienarik ikusiko egun horretan plazan, baina feriantek biharamonerako lekua hartzen hasiko dira eta arrats partean, plazan musika eta Herriko Etxeko arkupetan ajoarriero lehiaketa izanen dira, azken urteotako ohiturari eutsiz. Egun handia ortzeguna

izanen da. Inguru honetan, plazara azaltzen diren aziendak saritzen dituen feria bakarra da Lesakakoa. Azken urteotan zaldizkoa gailendu da, baina esne eta haragitako behi batzuk edo aharikoren bat edo bertze ikusteko modua ere izaten da plaza inguruan. Horretaz gain, plaza barnean bertsolariak eta aizkolariek euren abildadeak erakusteko modua izanen dute. Bazkalondorako pilota partidak eta musika izanen dira.



GARDELBERRI

Herria
LESAKA
(Auzoberri
auzoa)

Nagusia
Nekane
Elizondo

Azienda
kopurua
22 esne-behi
eta 100 bat
ardi. Oilo eta
behor batzuk.
Kuota
90.000 litro

➔ GARDELBERRI *Lesaka*

«Baserriak badu etorkizunik, zerbait eginez gero zerbait uzten du»

Esnetako 22 buru (18 bat behi eta gainerakoa aretxe edo migak) eta 100 bat ardi pasatuxe dituzte Auzoberri auzoko Gardelberrin, Lesakan. Horretaz gain, oilo eta behor batzuk ere badiutuzte etxe inguruan, Jo-

nez: «Ez dakit denaren beharra izanen den, baina izan izaten ditugu. Oiloak eta behorak etxe inguruak garbitzeko edukitzen ditugu, traba egiteko haina». Lesakan fabrika paratu zutenetik normalean denez, Josetxok lantegian egiten du lan

eta baserriko kontuak emaztearen izenean paratua dago.

Behi esnea Iparlategi saltzen diote. Oinarriko prezioa litroko 49,5 pezetakoa dela errandigu Josetxok, «baina kalidadearekin eta goiti joaten da normalean, hame-

ka bat durotan saltzen dugu orain. Baina goiti bezala beheiti ere egiten ahal du igual-igual». Ardiak, aldiz, ez dituzte esnetarako erabiltzen, haragitarako bildotsak hazteko baizik. «Bildotsa eramanen duenari saltzen diogu: batzuk Doneztebeko

Etxeberria
Ostatua



Plaza Zaharra
☎ 948 637700
LESAKA

ORONÓZ
ARGAZKIGINTZA

Plaza Zaharra 11 • LESAKA • Tel-Faxa: 948 637593

★ IZARRA ★
OKINDEGIA

Ongi pasa ferietan!

Plaza Zaharra, 13
☎ 948 63 78 55 • LESAKA

Mendiburuk eramaten ditu, bertzeak Donostiako batzuk... prezio onenarekin nor etortzen den hekeri». Azienda guzi hauek bazkatzeko etxe-ko belagiak erabiltzen dituzte gehien bat Gardelberrin: «Gehiena etxe-ko bazka ematen diegu, negurako siloa egiten dugu. Komunalean ere ibiltzen ditugu ardiak uda partean. Pentsua ere ibiltzen dugu, Unzue pentsua normalean, herriko kooperatiban erositia».

Bazkak egiteko orduan, etxe-ko tresneria erabiltzen dute Gardelberrin, ez baitute auzoan eskatzeko edo errentan hartzeko ohiturarik. «Komodoagoa da norberak bere makina izatea eta beharra suertatzen zaizunean erabiltzea».

«Herririk urruti gaude eta ez ditugu aziendak feriarara eramaten»

Seme-alaba gazteak dituzte oraindik Nekane Elizondok eta Josetxo Maiak. «Etxean laguntzen dute tarteka-tarteka, baina goiz da oraindik honetan segitzen duten jakiteko. Eskolan es-tudiatzen ari dira oraindik eta gero ikusiko da. Tikiak badu afizioa...». Ba-



AITOR AROTZENA

Aitzineko orrialdean eta goitian esne-behiak Gardelberrin. Ondoan, Gardelberri baserria.

serriak, orokorrean, etorkizuna baduela uste du Josetxo Maiak. «Segida baduela iruditzen zaigu guri. Lan gogorra da, lotua eta hori da txarrena, baina zerbait eginez gero zerbait uzten du».

Herririk urruti xamar dagoenez, Gardelberrin ez dute behiak Lesako plazara eramateko ohiturarik. «Urruti xamar gaudezi eta behiak esnearekin izaten ditugu garai hortan. Beraz, ez zaitez horrela ibiltzea interesatzen. Premioak eta dietak ere ez dira sobera haundiak... kasik kamioia pa-

gaztea garestiagoa aterako litzaiguke».

Esnetako behiak dituzte eta aretxe txikiak zortzi egunekin kentzen dituzte. Horregatik, ez dute behi eroen eritasunaren eragina somatu. Baina Josetxo Maiak onartu du ardi-erropie eritasuna ateraz zenean somatu zutela. «Lehenengo urtean gaizki xamar ibili ginen bildotsa saltzeko, baina aurten saldu ditugunak aisa saldu dugu. Aspaldixko prezio berean dago, gastuak estaltzeko adina, baina saldu saltzen da».




MARIXUS

Elektragarriak

ENETERREAGA ANAI-ARREBAK

Zarandía, 3 • t. 948 637 070 • 31770 LESAKA

Elektragarri tikiak
Iturgintza eta elektrizitate materialak
Ordezko piezak eta moldaketak
Bertako zerbitzu teknikoak
Instalazio elektrikoak



Esarte

AITZINETIK
PRESTATUTAKO
JANARIAK



Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan KONGELATUAK → • Albondigak

• Urdaiazpiko, oilasko, piper eta arraultze krocketak

Jaime Urrutia 35 - t. 948 58 01 28 • ELIZONDO



TELLEGI

Herria
LESAKA
(Auzoberri
auzoa)

Nagusia
Pakita Irazoki

• Azienda kopurua
23 esne-behi eta
• hiru-lau aretxe
eta miga. 120
• bat ardi. Oiloak,
• 4-5 behor eta
zerriren bat.
• Kuota
110.000 litro

☞ TELLEGI *Lesaka*

«Hemendik hamar urtera ez da esnetako behirik izanen Lesakan»

Endara auzotik hurbil, Kopako Harria eta Aiako Harriak kasik begi-bistan dituztela bazkatzen dira Tellegiko aziendak. Esteban Irazokik erran digunez, «etxeko belagietan bazkatzen ditugu gehienetan. Bi kamioi arto entsilatu ere

erosten dugu negurako. Etxeko belarren lehendabiziko kortearrekin, dena bolak egiten ditugu eta gainerakoa idortu. Belarra mozteko makina gurea dugu eta siloa egiteko subkontratatu egiten dugu makina bat». Hamabortz-hamasei Hektarea di-

tuzte Tellegin eta, horretaz gain, herri lurretaz ere baliatzen dira. «Udan ardiak komunalean kontzen ditugu eta neguan etxe aldean». Behiesnea Iparlatera saltzen dute. Ardiak bildots haragirako erabiltzen dituzte: «bildotsak kendu

eta gero larrera bidaltzen ditugu. Tratanteei saltzen diegu bildotsak, baina azkeneko hamabortz urteetan prezio igualtsuan dabilta. Joan den urtean pixko bat goiti egin zuen, baina bertzenaz diferentzia ttikia egin du urte batetik bertzera».

LVR
albaitaritza zerbitzuak

**Aziendendako
botikak eta tresneria
Zakur eta katuendako
pentsu eta osagarriak**

Plaza Zaharra 2 • ☎ 948 638293 • LESAKA


GOIZ-ARGI
Janzkera • Lentzeria • Etxebarnea

Plaza Zaharra, 14 • ☎ 948 637 721 • LESAKA


**TELEBOTE
OSTATUA**
Feria onak
pasa!
Arretxea, 10
Tfnoa: 948 637188

«Etorki ttikia eta gastu handia du esnetako behiak»

Baserriaren eta, batez ere, esnetako behiaren etorkizuna goibela da, Esteban Irazokiren erranetan. «Lesakan eta Bortzirietan ere, hemendik hamar urtera ez da esnetako behirik izanen... edo baldin bada, hagitx gutti. Egutero lana egin behar da, ez da iganderik hemen, etorki ttikiak dira eta gastuak, aldiz, handiak. Makinetan diru aunitz joaten da». Gainera, bertze eskualde batzuetako abeltzainekin konparatuz, inguru honetako baserriarrek baldintza kaxkarragoak dituzte, Tellegikoen ustez: «Hemen ez da terrenorik eta dau-denak malda haundikoak dira. Orduan, ezin duzu konpetitu terreno aunitz eta zelaia dituzten bertze leku batzuetako esplotazioonekin. Oraingo ohi-tura behi aunitz paratzea da, eta horretarako janaria hurbilean behar duzu. Jatekoa urrutitik ekarri behar baduzu, porteetan diru gehiago joaten zaizu. Orduan granja bat montatu behar baduzu hobe da Erriberan montatzea, jatekoa hurbil duzun lekuan». Estebanek esne-



AITOR AROTZENA

Tellegiko esne-behiak, etxe ondoko belagian bazkatzen.

tako behia desagertze bidean ikusten du inguru honetan, baina baserriek aitzinera segituko omen dute. «Behi pinttorik ez, baina belagiak kontzeko ardi batzuk eta behi gorriak paratuko dituzte baserrietan. Hauek lan guttiago eskatzen dute, baina nere iduriz esnetako behi gutti geldituko da. Nik gazte denboran ezaguturatu dut Lesakako baserri guzietan esnea ateratzen. Orain ez dakit zaz-

pi-zortzi baserri izanen garen denetara». Tellegiko azientek ez dute ferian parte hartzen: «Hemendik urruti gelditzen da eta behi esnedunak eramaten eta ekartzen ibiltzeko ez du merezi. Aziendak sufritu egiten du eta deskuidatzen bazara, mina hartzen du edo hoztutzen da... Ez dugu deus ere irabazteko!». Hiru senide aritzen dira Tellegin, bertan bizi diren gurasoenkin batera. «Denak fa-

brikan aritzen gara eta fabrikatik aparte, baserria ibiltzen dugu, hiru senideek txandan. Gure seme-alabak momentuz eskolan dabilta. Laguntzeko prest izaten dira, baina egitan hasi behar denikan orduan ez da hasitzen... Behi esnedunarekin ibili behar duenak, ibili behar du bere orduetan eta zuzen, fabrika bezala. Goizean eta ilunabarreran zuzen ibili behar da, hemen ez da igande eta jai-

rikan, egutero egin behar da lan».

«Belagiak berde eta politak ikusten dira, baina horrek badu bere kostea»

Gaur egungo nekazaritza politikarekin ez dago konforme Esteban Irazoki, eta etorkizunera begira, inguru honetan nekazaritza mistoa bilatu beharko dela us-te du Tellegikoak. «Lanbide bat eduki eta aparte

**Konponketa eta Salmenta
Nekazaritza eta lorategietako
tresneria • Motoak**

Ferietan hurbildu zaitetz gure erakusketa ikustera
Lesaka erdi-erdian gaude.



**IRAZOKI
janari
denda**

Besta ederrak
pasa itzazue!!

Arretxea, 12 ¢
948 63 70 85
LESAKA

LESAKA AUTOERKOLA LCC bi egunetan azterketarik gabe
Tfona: 948 63 78 70

Albistur 39 - H
A1 - A - B - BTP - C1 - C eta E karnetak ateratzen ahal dira

KAXULA

*Sukaldeko tresnak
Opariak
Pinturak*

Albistur, 51 LESAKA • ☎ 948 63 75 58

Feria ederrak pasa!

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Tel. 948 637 460 31770 Lesaka (NAVARRA)

KASINO Ostatu-jatetxea
Plaza Zaharra 14 • ☎ 948 637152
LESAKA



AITOR AROTZENA

Tellegiko ataria, Lesakako Auzoberri auzoan.

baserria kontzeko sistema bat bilatu beharko da. Hemen sasi bihurtzen ari dira hektarea eta hektarea belagi, eta hori ez dute ikusten nekazaritza politika zuzentzen dutenek. Erriberan, berriz, ehun behirekin granja bat montatzen dute, esne aunitz produzitzen dute baina hor badi dira hondakin batzuk, gorrotza, piza... horiek ez da-

kit non lekutzen diren. Ez dakit hagitz ongi diseinatutako politika den». Laguntzaren beharra ere azpimarratu du Irazokik: «Hemen baserriarrak ez du laguntzarikan, eta laguntzarik gabe ezin da deus ere egin. Produktzioan ezin dugu konpetitu hemen ditugun maldekin eta guk dugun ingurua defenditzeko zerbait egin beharko

litzateke. Belagiak orain hagitz politak daude, berde-berdeak, pasiatzera ateri eta ikusteko, baina horrek baditu koste batzuk. Oraindikan asumitzen ditugu, baina sarri lau behi gorri paratuko dira, makinak gastua handia izanen da eta hor ez du inork deus egingen. Horiek ez badi dira urtero moztutzen saiak hartzen ditu».

MADERAS ERKIZIA, S.L.
EXPLOTACIONES FORESTALES
BASO USTAFERAK

Feria ederrak pasa!

Plaza Berri, 7 Sakelekoak: 616 45 72 74
31770 LESAKA 616 45 72 75

e-mail: m.erkizia@teletel.es Tel-Fax: 948 63 71 58

MAIZIEGOA
OSTATUA
Ongi pasa ferietan!

ODRIOZOLA
eta
HUIZI

**ZERRAILGINTZA
TAILERRA**

Alkaiaga Industrialdea
Elutsa, Pab 3-18
☎ 948 631244
BERA

Feria
onak
pasa

Haragitako behien subentzioa

2002. urtetik goiti aldaketa batzuk izanen dira kupoaren erabileran

Behitegietan azienda gazteagoak izateko helburuarekin, hemendik aitzinera behi kupoaren %20a migekin betetzen ahal da (orain arte %10a zen onartutakoa). Konparazio batera, behi kupo hamar deretxokoa bada, lau miga deklaratzeko ahal dira, behitegian behi aski ez bada edo. Miga gisa onartzeko zortzi hilabetetik goitiko behar du izan.

Baina aukera horretaz gain traba bat ere izanen da, kupo hamahirutik goitiko den ksaue-tan: gutxienez kupoaren %15 migekin erabili behar da. Konparazio batera, kupo hamalaukoa bada, guttienez hiru miga deklaratu behar dira, nahitanahiez.

Holako kasuetan, eta behi/miga proportzioa



juxtu xamarra baldin bada, kasu eman behar da. Izan ere, proportzio hori erretentzio epe guzian mantendu behar baita, hau da, abuztu-iraila bitarte. Beraz, tartean miga batek erditzen badu, behi gisa kontatuko da, eta horren ordez bertze

miga bat izan beharko da baserrian. Beti ere 8 hilabetetik goitikoa.

Koadroan ageri da kupoaren arabera, zenbat miga deklaratzeko ahal diren gehienez, eta zenbat deklaratu behar diren gutxienez.

MIGEN DEKLARAZIOA		
KUPOA (Deretxoak)	MIGAK GEHIENEZ	MIGAK GUTXIENEZ
1	0	0
2	1	0
5	2	0
8	3	0
10	4	0
13	5	0
14	5	3
16	6	3
18	7	3
20	8	3
21	8	4

BITTIRIA
Errioxako ardoak urdaiazpiko eta hertzebeteak
ardotegia
Ongi pasa Feriak!
Ditua, 01 - 948 637337 LESAKA

LESAKAn gaituzure zerbitzura
Plaza Berria, 10 - ☎ 948 637335
Garbi - Leku
tindategia
Arropa, larruak, tapizak, etab... garbitzen ditugu

FAGOAGA
HARATEGIA
Albistur, 19
Tfnoa: 948 63 78 69
LESAKA
Feria ederrak pasatu!

A. T. O.
OTXANGO S.L.
ESTATU BARNEKO eta
ESTATU ARTEKO
GARRAIOAK
• Antoiu 23 • Behea
• 31770 LESAKA
• Tfnoa: 948 627644
• Faxa: 948 627656
• otxango@teleline.es
GARRAIO AGENTZIA

Juanjo ERRO
ZURGINDEGI
LANAK
OROKORREAN
MOBLE ZAHARREN
KONPONKETA
AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE
Alan-Zahar•LESAKA
☎ 948 637862



ALMACENES ETXANIZ, S.A.



vegasa[®]

- Sukaldeak
- Bainuak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasa-gasoila
- Griferiak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasajea
- Osagarriak

ERAKUSKETA Tfnoa. 943 61 17 67
Juan Arana, 1 Fax: 943 61 44 64

IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak



Larunbat
goiz eta
arratsaldez irekia



ERAKUSKETA: Bitinia 30 eta Plaza Zaharra 26 • **SALTOKIA:** Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780 • NA-31780 LESAKA

LEITZA

Ur eskasiaren arazoa nabarmendu da udazken eguzkitsu honetan

Euskara Batzordea berriz ere lanean hasi da

Mikel ILLARREGI

Azkeneko hiru hilabetea, aspaldiko urte hauetan lehorrena izan da Euskal Herrian, baita Leitzan ere. Udazken goxoa dastatu ahal izan dugu, baina honekin batera okerreko ondorioak ere izan dira. Egun, zenbait baserritara ura eramaten ari dira bertako iturriak agortu direlako. Urrutiko kontua iruditzen zaigu paraje berde hauetan, baina gero eta hurbilago dugu, ur eskasiaren arazoa pairatzen hasiak baigara. Udalak iturri berriak ikertzeko akordioa hartu du, gaur egun erabiltzen diren hainbat lehortu baitira. Hala ere, egiten dugun ur-erabileraz zer pentsa ere eman dezake eta eman beharko luke. Zenbat ur erabiltzen dugu alperrik? Dutzatzerakoan, hortzak garbitu edota bizarra kentzerakoan, kotoxak garbitzerakoan, ontziak uretan jartzekoan, ? Itxura denez denok Udalari uraren erabilera ordaintzen diogu, baina benetako zorra ote da? Batzuek diotenez, hemendik urte gutxira ura izanen da eguneroko beharretan beharrezkoena bihurtuko dena. Gero eta gehiago erabiltzen dugu eta honen eskasia dela eta, toki guztietan gero eta nabariagoa izanen da. Kontuz beraz, eta buruz ere erabil dezagun behar duguna!



MIKEL ILLARREGI

Egitan behar dugun ura erabiltzen ikasi behar dugula erakutsi du azken lehorreak.

Euskara Batzordea berriz ere martxan

Leitzako Euskara Batzordeak herriko talde eta elkarteak deitu ditu euskararen inguruan lan egin eta zenbait ekimen antolatzeko. Horrela, iaz hasitako lanari jarraipena eman nahi zaio, euskararen aurkako erasoen ez baitute atseden hartu, eta horregatik lanean jarraitzea nahitaezkoa da. Hurrengo bilera, nahi duten guztientzat, azaroaren 20an, Aurrera elkartean.

Erasote erreka eta Gitarranbuelta inguruko lanak

Martxa onean doaz Erasote erreka eta Gitarranbuelta inguruko ur-bidea egiteko lanak. Lehendabiziko faseak 80 milioi pezetako aurrekontua du eta lanen laurik hiru egina dagoela esaten ahal da. Erasote erreka ur-etorria handitzeak sortzen duen arriskua saihestu nahi da lan hauekin, Gitarranbuelako zabortegea berreskuratzeaz gain.

Proiektu osoak 100 milioiko aurrekontua du.

'El C rculo' filmea hurrengoa

Ona izan da orain arte zinemarako herritarren erantzuna, antolatzaileen arabera. Orain arteko filmak izen eta eduki onekoak izan dira. Asteburu honetan 'El C rculo' filma proiektatuko dute. Filma honetan Iraneko emakumearen bizimodua kontatzen da, bat egiten duten istoriotxo desberdinetan. Zinemak, butaka erosoaz gain, berogailu ederra ere baduela gogorazten digute antolatzaileek.

Albaiteroa ostiraletan

Jakinaren gainean egon arren, gogorazten dizuegu azizien sanitare agiriak egin nahi badituzu Leitzara datorren albaiteroaren zerbitzua ostiralero eguerdiko 12etan izanen dela.

Bestalde, azizien daukanak, Abeltzantzaren Aberastasuna Kontatzeko Orria (kastastra), Udaletxeko bulegoetan betetzea beharturik dago, azaroaren 30a bitarte.

Kultur Elejira

Kultur Elejira programazioaren barne, azaroaren 23an, ostirala, euskal musika tresnen erakusketa-hitzaldia antolatu da.

FLASH

Bardeetara ibilaldia

Azaroaren 25ean Mendibil mendi taldeak Bardeetara, aurten Bardea Beltza, antolatu du irteera. Bizikletaz edo oinez egin daiteke ibilbidea. Horretarako izena eman behar da ohiko tokietan hilaren 22a baino lehen.

Behobia-Donostia

Urtero egiten den lasterketa honek hemen ere badu arrakastarik, aurten hogeita bost lasterkari baino gehiagok parte hartu du. Batzuk lasaia, besteak arinxeago baina denak saiatu dira ahal den hobere egiten hogeita kilometro baino gehiagoko kirol proba hau. Animo bada, eta hortan segi!

Trapuan pupua liburua aurkeztu du Perurenak

Nafarkarian argitaratutako artikulu guztiak bildu ditu Patziku Perurenak 'Trapuan pupua' deritzan liburuan. Hitzaurrea, apologoa eta galbideaz gain, 152 artikulu agertzen dira 357 orrialdeko liburu honetan.

Gaztetxulo aldizkariaren urteurrena

Euskal Herriko gazteen hilabetekariak urtea bete duela eta astebetz Euskal Herria zeharkatuko duen autobusa antolatu dute. Azaroaren 15ean, osteguna, Amazabal Institutuan izanen da, eguerdiko 2etan. Musika afrikarra eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du Tentazioak taldeak. Promozio gisa Gaztetxuloren ale berezi bat ere banatuko da.

BAZTAN

Baztango irakurleek Ttipi-Ttaparengatik 2.000 pezeta ordaindu beharko dituzte urtero

Baztango Udalaren dirulaguntza nahikoa ez denez harpidetza kanpaina egin du aldizkariak

Rakel GO I

Baztango Udalari 2000. urtean TTIPI-TTAPAK ordaintzeko, eta ondorioz dohainekoak izateko, 3.308.674 pezeta eskatu zitzaizkion. Udalak 560.000 eman zituen, gastuen %6,8a. Gainontzeko dirua ordaintzeko urteko 2.000 pezetako saria eskatu behar izan die Ttipi-Ttapak Baztango irakurleei. Aldizkari honetako langile bat, aritu da etxetxe telefonoz deika eta etxean harrapatu ez zaienei karta bat bidali die. Halere norbaitek ez badu deirik edo kartarik jaso eta Ttipi-Ttapa hartzen segitu nahi badu aski du gure telefonora deitzea: 948 63 11 88 (arratsaldeko 2etatik 6etara) eta Amaiaz galdetzea.

Azken 12 urteotan Ttipi-Ttapa ia etxe guzietara ailegatzea lortu zen, gainera rebista guztiak dohan ziren. Baina dirulaguntzak nahikoak ez direnez rebista kobratzen hastea erabaki zen. Batzuei ongi iruditu zaie, bertzeek sor-



DIARIO DE NAVARRA

Bego a Sanzberro Nafarroako Gobernuan prentsaurreko batean.

presarekin hartu dute abisua. Dena den erantzuna orokorrean arrasona izan denez, aldezturik eskerrak eman nahi dizkizuegu irakurle guztiei.

Bego a Sanzberrok Emakume Langilearen saria jasoko du Nafarroako Gobernuak Almandozko Bego a

Sanzberrori emanen dio hilabete honetan Emakume Langilearen saria. UAGN sindikatuak aurkeztu zuen bere izea eta 29 hautagaien artean saritua izan da. Sari hauek emakumeak lan munduan sartzeko bidean lagundu dutenei zuzentzen zaizkie. Bego a Sanzberrok lau seme alaba ditu eta nekazaritzan dihardu lanean.



BAZTAN IKASTOLATIK BIDALIA

Baztan Ikastolako haurrek oinez ibiltzeko arauak ikasi dituzte berriki. Argazkian Elkar autoeskolako Maitte, galdera guzietan erantzuten

FLASH

Kantiruki taldea Arizkunenean

Azaroaren 18an Iparaldeko Kantiruki taldea Arizkunenea Kultur Etxean arituko da arratsaldeko 8etan. Terexa Garaikoetxea, Sylvie Brust eta Sylvie Cherberok osatzen dute taldea eta abesti ezberdinak aurkeztuko dituzte, euskarazko kantu zahar eta berriak, rock-a, fandangoa, balsak eta abar. Folk Ametsetan zikloaren azkeneko aktuzioa izanen da. Bertan hiru emakume hauek a capella, euren ahotsaz bakarrik baliatuz abestuko dute, lehenagoko eta oraingo abestiak irudikatuz.

Baztango Mendigoizaleak

Urriaren 18an Urdazubira eta azaroaren 25ean Aizkolegira egingen dira irteerak.

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
☎ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Gierresenen
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
☎ 948 45 20 88

BAZTAN



RAKEL GO I

Oronozko saihesbideko lanak martxa ederrean doazi. Lehenengo argazkia Arraioztik hurbil egina dago eta bigarrena Askapeko Harrobiaren bihurgunean. Zozia inguruan lur aunitz mugitu dute ere.

Elizondoko museo etnologikoa “moruen” etxean egonen da

Iturria-Reparaz familiak Puriosenea etxea utzi du museoa bertan egiteko

Rakel GO I

Ana Mari Marin Elizondoko alkate juradoak aspalditik zuen gogoan herri museo etnologikoa egitea. Azkenean lan handia egin ondotik Txokoto auzoan dagoen Puriosenea, “Moruen Etxea” izenarekin ezagutua, 15 urtez ematea lortu du. Iturria-Reparaz familiarena da etxea eta berriki zesoaren sinaketa egin dute. Ana Mari Marinen erranetan museoa Elizondon egonen

bada ere, bailara guztiarendako izanen da. Museoari Jorge Oteiza izena jarriko diote eskultorearen omenez. Eduardo Zubikoa arkitekto Elizondarra arduratuko da proiektua egiteaz. Bere erranetan “museoak balio bikotza izanen du, barnean dagoenarena eta etxearen arkitekturarena”. Ana Mari Marinen ustez heldu den urteko eguberrietarako museoa bukatua egonen da.

Puriosenean, Txokoton, museo etnologikoa egingen da laster.



FLASH

Anizen bertso afaria izanen da

Anizko elkarteak azaroaren 24rako bertso afaria antolatu du. Bertsolariak giro ederra sortuko dute elkartearen bertan. Era berean Anizko Elkartearen eguberrietako loteria salgai dago jadanik.

Antxitonea trinketean gaupasa azaroaren 24an

Azaroaren 24an, larunbatarekin, gaupasa egingen da Antxitonea trinketean. Erratzuko Ufesteuek eta Sunbillako Jallisko Band musika taldeek joko dute, arratsko 12:30etatik aitzin. Sarrera debalde izanen da. Oporren ondotik irekiera besta izanen da azaroaren 24koa.


1935eko kinto besta

Almandozko Beolan bilduko dira abenduaren 9an, igandea, Zugarramurditik Berara 1935ean sortutako kintoak. Izen emateko epea abenduaren 3an akituko da, 948 580155 telefonoan (Felix Mena).

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARROPA DENDA
PARTIXKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI



SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



SARA

Santa Katalina ohoratua izanen da azilaren 25ean Olhaldeko kaperan

Usategietako xareetan bederatzi dozena uso atxeman dituzte aurten

A a Mari eta Fred

Azilaren 25ean, igandearekin, Santa Katalina ohoratua izanen da. Olhaldeko kaperan burutuko da meza goizeko 10:30etan herriko kantariekin. Mezatik lekora Baratxartea jatearean aitzinean Muxikoak dantzatzeko manera izanen da. Ahatik besta larunbatean hasiko da. Urtero bezala tripotx jatea prestatuko dute Baratxartekoek eta gaua alaitzeko Tote Mitxelena izanen da musikari. Larunbat arratsean afaltzeko edo igandean bazkaltzeko hobe aitzinetik lekuak atxikitzea.

Usategietako xareak bilduak

Azilaren 4ean bildu zituzten Sarako Usategietako xareak. Uso aunitz pasatu da, bainan usozaleek ez dute denbora alde izan. Haize hegoarengatik uso gutti sartu dira xareetan. Halere, joan den urteko kopurua doblatu dute,



ARTXIBOKOA

Azilaren 25ean meza ospatuko da Olhaldeko kaperan.

zortzi dozena atxemanez.

Pilota kontu

6. aldiko Pleka trinketea pala txapelketa antolatu da. Abenduan hasi beharra da eta hil hunen 25a arte izen ematen ahal da (160 libera) 0559542206 zenbakian. Hiru maila osatuko dira gehi maila bat neskenzat. Bertzalde, Euskal Herriko Pasaka txapelgoko kanporake-

ta batzuk Plekan jokatuko dira, azilaren 25ean eta abenduaren 2an.

Laborariendako asurantzak

Urriaren 27an Sarako laborantza kutzak (CLAMA) ezohiko bitzar nagusia egin zuen heldu den urtean izanen diren asurantza neurri berrien esplikatzeko. Alabainan, orain arte laborariak babesten zuten legea 1966eko zen,

eta lege horren arabera, ezbeharrak asurantzaille pribatu batek hartzen zituen bere gain. Hemendik goiti, dozierrak Asurantza Sozialaren peko den MSA-k kudeatuko ditu. Desberdintasun handia da sistema horrekin laborariak eguneroko ordain sariak eskuratzen ahalko dituztela, lehen ez bezala. Hitzarmen aldatetako urtarilaren 1etik goiti eginen dira.

FLASH

Egur loteak

Egur loteak erosi nahi dituzten Saratarrek ize-na eman behar dute Herriko Etxean abenduaren 7a baino lehen. Lote bakoitza 400-500 libera kostako da eta usaian bezala, sortea eguberri aitzineko igandean eginen da, abenduaren 23an.

Behi esnedunak

Behi esnedunen hazkuntzan ari diren laborariak dirulaguntza gehiago erdiesteko eskubideen emendakina galdetzeko txosten bereziak hartzen ahal dituzte Herriko Etxean azaroaren 30a aitzin.

Bi lasterkaldi Larresoron

Joan den azaroaren 4an, igandearekin, bi lasterkaldi antolatuak ziren Larresoron. Dene-tan, 150 lasterkari lehia-tu dira 5 edo 11 kilometroko ibiladietan. In-guruko lasterkaldi gehie-netan bezala, Sarata-rrak ere hor ziren eta ai-patzekoa da Ramuntxo Lamothe-ek ibilaldi lu-zeenean eskuratu hiru-garren tokia.

Errugbia

Ematen du entrenatzailearen kargutik kentze-ak on egin diola Sara-ko Izarrari, azken emaitzak baikorrak izan bai-tira. Urriaren 28an Sara-ko bi taldeek Biarno-ko Goes herrian iraba-zi zuten: lehenak 3-43, bigarrenak 7-56. Ondo-ko astean ere emaitza ona izan da lehen tal-dearentzat, 18-6 nagusi-tu baitzaio Urru ari. Aldiz, bigarren taldeak garaipena eskura izan-ik ere, 17-21 galdu du. Azaroaren 11n jokatu beharra zuten Kanbo-ren aurka.

HERRIKO ETXEROKO EDANTEGIA
CATE DE L'ARRA
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

tipi
ttapa
948 63 11 88

SALAZONES UDANA, S. L.
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

AZKAIN

Gazteri Argibide Puntuak drogaren kontrako eguna antolatu du

Bertzalde, hiru eskoletako haur elebidunak liburutegian elkartu ziren

haintza, Angela eta Eneko

12 eta 13 urteko gazteek drogaren kontrako ekitaldi batean parte hartu zuten urriaren 24an. Gazteri Argibide Puntuak antolatu zuen zoingehiagoka bat haurrak arazo horri sentsibilizatzeko. Jean Pierre Ibarboure Azkaingo axuntaren arabera *"orain, gero eta gehiago, gaztetxoak pozoin horien kaltetuak eta presoak dira. Buraso, erakasle eta hautetsien egin bidea da ifernu hortarik haur gazteen begiratzeari. Jokoa antolatua izan da haurrek jakin dezaten zoin diren drogak ekartzen dituen ondorio dorpe eta pisuak"*.

Joko hortan haurrek orgatxo bat ahal bezain fite eraman behar zuten, barnean droga itxuratzen zuen pertsona (Dani le Tapia, herriko axuenta) ezarria zelarik. Joelle Daubas antolatzaileak bazuen zer egin egun hartan. Jokoa ondotik Jean-Louis Laduche auzape-



ENEKO

Haurrek drogak ekartzen dituzten ondorioak jakin zituzten, jokua bidez.

za, Zubia elkarteko Vignaud eta Molies Jaunak eta haur guztiak herriko etxean bildu ziren krakada baten inguruan.

Euskal kantu eta liburuak

Euskal Kultur Erakundeak eta Herriko Etxeak, Hizkuntza guttitiuen urte Europearra dela eta antolatua, azaroaren 6an Azkaingo hiru eskoletako elebidun haurrak (Ikastola, An-

dre Dena Mari eskola eta eskola publikoa) liburutegian elkartu ziren. Euskaraz irakurtzeko eta kantatzeko gogo emateko helburua zuten. Bi lan taldeetan banatu ziren haurrak. Lehenak Kattalin Totoricarekin liburu bat nola hautatu, nola irakurtu eta olerki batez agutzen ikasi zuten. Bigarrena, Daniel Landart-ekin, Kantuketan CD-romarekin kantuz aritu ziren.

Dantza

Ikasleak elkarrekin helduentzat dantza kurtsuak hasiko dituzten orziraletan Jauregian, izen emate aski baldin bada. Bi talde izanen dira: Lehenak Hegi, Axuri Beltza, Lantzeko Ihauteria, eta Fandangoa ikasiko dituzte. Bigarrenak Fandango, Arin-Arin, Larrain, Jota eta beste batzuekin. Xehetasun gehiagorentzat: 05 59 54 09 12 (Be at edo Sylvie).



PERTSONAIA

Angela JORAJURIA

Paludismoaren kontrako erremedioa eman dugu Senegalen

Duela gutti, bi aste Senegalen iragan dituzu. Zer egitera joan zinen?

Euskadi-Senegal izeneko elkarte batekin joan nintzen. Urte guziz elkarrekin harat joaten da paludismoaren kontra tratamenduen eskaintzeko. Bidaia Urriaren egiten da euriteen ondorengatik eta sasoin hartan da eritasuna gehienik zabalitzen.

Zoin zen zure lana?

Hango farmazian arin nintzen. Medikuek ere baziren, haiek ordonantziak prestatzen zituzten eta guk erremedioak saltzen.

Irudi azkarrek atxiki dituzu?

Haur baten sortzea ikusi dut lehen aldiko. Garbitasun kondizioak ez dira hemengoak bezalakoak eta beren kultura arras desberdina da. Emaztearen amak ez du sortzea begiratu behar, izeba edo senarraren ama aldiz hori dira laguntza ekartzeko. Emazteak aldiz ez du erakutsi behar sofritzen duela eta haurra sortu eta gero etxerat sartzeko da lehen baino lehen. Plazenta lurperatzen dute gizona edo emaztearen baitatik datorren guzia bezala.

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuekako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

Artisan

GOZOTEGIA OKINDEGIA

S.A.R.L. ETXE-ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67

SENPERE



STUDIO DE LA NIVELLE

Klasetako bazkari eta afaria andana izan da azken aldian. Urriaren 27an, 35 (ezkerrean) eta 50 urte betezen dutenak bildu ziren Aintziran eta Arozena jatetxean, eta azilaren 3an 55 urteko senperrak (eskuinean) elkarretaratu ziren Mendionde ostatuan.

SCOT lurralde antolaketa koherentea eskema sortzen ari da eskualdean

800.000 libera gastatuko dira aurten bide, zubi eta bide-bazterrak zaintzeko

Franck DOLOSOR

Azilaren 8an, eskualdeko hainbat hautetsi, hauen artean guzuzenak bildu ziren SCOT proiektuaz mintzatzeko Sarako Omordian. Lapurdi hegoaldeko erakunde publiko eta instituzio guzuzenak eta asmoak bilduko lituzke proiektu zabal honek. Bizpahiru urteko epea beharko da dena martxan emateko. Gehienentzat desmartzan interesgarria da bainan kezkatuak daude zombait kontseilari zeren herri txikiek beren podere

rea galtzen ahal bailukete beren ustez. Ere-muz Senpere baldin bada herririk zabalena eskualdean, kezka sortzen da kostaldean eraikitzen den etxegintza soziala gurerat ekartzen ahaliko bailitake. Ondoko hilabeteetan asmo hunek zer erran haundia piztuko du, SCOTak herrietako gai frango huntzen baititu ondarkeren biltzea bezala.

Bide, zubi eta bide bazterrak

Herriko etxeak bere aurrekontuaren %5a ba-

liatuko du aurten ere bide, zubi eta bide bazterrak plantan atxikitzeko. Lan haundia dudarik gabe zeren Senperetik 650 hektarako hedadura baitu, 128 kilometra baserri bide eta 105 kilometra herri bide. Orotarat 800.000 libera baliatzen dira 4 lan egiteko nagusiki: bideak gudronatu, zubiak berritu, baserri bideak harriz arimatu eta bide bazterretako belarrak moztu.

Lan hauen artean, Zaldubiako zubia berritu da duela gutxi. 3 astez, urguriko zubia he-



STUDIO DE LA NIVELLE

Ez zitzaion balentria ttikia Unairi aitatzki eta amaxiren baratzean 3 kilo eta 750 gramako jateko berraua biltzea.

tsi zuten burdinezko zola berritzeko. Lan hauek

27.000 liberako gustua izan dute.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209



ANTXITONEA

Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

EZKONTZAK

Juan Jose Eugi Arretxea eta **Itziar Gamio Arregi**, Iruritakoak, urriaren 22an.

Carlos Maiza Iturbide eta **Maria Beatriz Go i Olangua**, Iru akoak Elizondon, urriaren 29an.

Jose Manuel Suarez Velau eta **Ana Isabel Lertxundi Sansi ena**, Cabes (Portugal) eta Elizondokoa, urriaren 30ean.

Antonio Organbide Go i eta **Celine Telletxea**, Baigorri eta Baionakoak, Elizondon, azaroaren 2an.

Angel Maria Ballarena Hualde eta **Maria Isabel Goienetxe Etxenike**, Elizondo eta Iruritakoa, azaroaren 3an.

Jose Luis Etxeberria Lekuona eta **Miren Josune Terreros Garcia**, Bera eta Lesakakoa, urriaren 27an.

Berta Mihura Garate eta **Alberto Vera Beorlegi**, Leitza eta Iru ekoa, azaroaren 3an.

Angel Urtxegi Telletxea eta **Estibaliz Urra Garro**, Igantzi eta Lesakakoa, urriaren 27an.

Fermin Etxarte Antzizar eta **Ainhoa Telletxea Maritxalar**, Lesakakoak, irailaren 29an.

Pablo Turumbay Izurdiaga eta **Bakarne Atxukarro Estonba**, Iru ea eta Irungoa Lesakan, irailaren 15ean.

Jon Imanol Antzizar Zeberio eta **Ileana Tommasi Martinez**, Hondarribikoak Lesakan, urriaren 20an.

Alfredo Angel Jose Aranguren Pellejero eta **Nuria Mateos Pulido**, Lesaka eta Donostiakoa, urriaren 31n.



JAIOTZAK

Maialen Jaurena Etxart, Urdazubikoa, abuztuaren 22an.

Egoi Zelaieta Gamio, Elizondokoa, urriaren 15ean.

Kattalin Lizarreta Insausti, Iruritakoa, urriaren 5ean.

Joanes Altxu Urtasun, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 26an.

Soraya Gimenez Jimenez, Elizondokoa, urriaren 29an.

Iker Iparragirre Opoka, Doneztebekoa, urriaren 4an.

June Azpiroz Iguzkiagirre, Igantzikoa, urriaren 30ean.

Jon Etxepeteleku Burgete, Lesakakoa, irailaren 17an.

Kattalin Odriozola Mujika, Lesakakoa, urriaren 29an.



HERIOTZAK

R gulo Felix Barazabal Zugarramurdi, Azpilkuetan, urriaren 24an, 86 urte.

Pedro Goia Zozia, Arantzakoa, urriaren 14an, 76 urte.

Jose Maria Aineto Sansi ena, Lesakakoa, urriaren 25ean, 80 urte.

Angela Igoa Irigoien, Lesakakoa, urriaren 29an, 90 urte.

Teodoro Huarte Arburua, Lesakakoa, urriaren 29an, 95 urte.

Fermina Ordoki Almandoz, Arantzakoa, urriaren 31n, 81 urte.

Enkarni Matxikote Irigoien, Igantzikoa, azaroaren 3an, 46 urte.

Francisca Sarratea Ustariz, Legasakoa, azaroaren 4an, 89 urte.

Jose Maria Eratsun Otxandorena, Zubiakoa, azaroaren 7an, 85 urte.

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas instalazioak
- Iturgintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

Enkarni MATXIKOTE IRIGOIEN

Nondik aterako dugu indarra? nondik atera kemena? udazkeneko usoen antzera joan zara Enkarni gurea orain gaude ezin kontsolaturik bihotzean dugun pena Piedadeko Amaren altzoan har ezazu atseden.

ZURE FAMILIA, Igantzín, 2001eko azaroaren 3an.

Mila esker une latz hauetan gurekin egon zareten guziei.

I CHE
GESTIONES FUNERARIAS, S.L.
☎ 900 704704

FUNERARIA
ZERBITZUAK

LESAKA-DONEZTEBE

24 ordutako zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik edozein herritara trasladoko

Tfnoa 948 637404.....LESAKA
Tfnoa 948 450475.....DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971.....BAZTAN

ATLETISMOA

Celestino Aranguren korrikalari noaindarrak irabazi zuen Lizuniagako XXI. Igoera

Maika Ariztegi iturendarra gailendu zen emakumezkoen artean

Celestino Aranguren noaindarra nagusitu zen urriaren 28an Berako Gure Txokoa elkarteak hogeitabatgarren aldiz antolatutako Lizuniagako igoeran. 40 urteko korrikalariak 17 24 behar izan zituen probaren 4.900 metroak egiteko. Honela, senior kategorian irabazteaz gain, beteranoetako garaipena eta marka berria lortu zuen, 1989an Jose Ignacio Sodupek egin-dakoa 16 segundutan hobetuz.

Celestino Aranguren aisa nagusitu zen 55 korrikalarien artean, minutu erdiko abantaila atera baitzion bigarren izan zen Ramuntxo Lamote saratarrari. Hirugarren postua Fernando Etxegarai beratarrentzat izan zen. Jesus Mari Ruiz doneztebarra seigarren postuan sar-



Lizuniagako XXI. Igoerako gizasemeen senior eta junior mailako podiumak.

LEGARRA

tu zen. Beteranoen artean, erran bezala, Celestino Aranguren bera nagusitu zen. Amasako Jose Ramon Galarraga izan zen bigarren eta

Bautista Manterola irundarra hirugarren.

Nesken artean, espero bezala, Maika Ariztegi iturendarra nagusitu zen (22 02). Marisol

Martinez beratarrek 33 segundu gehiago behar izan zituen. Angeluko Nicole Doyhambeherek osatu zuen podiuma. Belen Guerra igantzia-

rra eta Adela Arlegi le-sakarra ailegatu ziren laugarren eta bosgarren postuan. Maika Ariztegi iturendarrak sei aldiz irabazi du Lizuniagako Igoera, azkeneko hiruak segidan, baina duela sei urte egin zuen markatik urrun gelditu zen.

Junior mailan beratarrek osatu zuten podiuma. Jon de la Cruzek denbora bikaina egin zuen (20 37) eta garaile suertatu zen. Bigarren postua Mikel Jaurerentzat izan zen (22 38 eta hirugarrena Gwendal Larquerentzat (22 51).

Senior mailako errekorra (16 13), 1982an egin zuen Peio Garinek eta geroztik inor ez da hurbildu marka horretara. Beraz, 20.000 pezetako sari berezia eman gabe gelditu da aurtengoan ere.

HERRI KIROLA

230 kiloko harria bi aldiz jaso zuen Inaxio Perurena gazteak

17 urterekin marka ikaragarria lortu du I akiren semeak

Aizkolarien finala ez zen Getxoko Andra Mari probalekuko ikuskizun bakarra izan urriaren 28an. Ondotik, Inaxio Perurena, I akiren seme gaztearen erakustaldia etorri zen. 17 ur-

teko harrijasotzaile gazteak bi aldiz berdindu zuen bizkargainean 230 kiloko harri errektangularrak. Aitzinetik, 170 kiloko zilindroa eta 200 kiloko errektangularrak erabili zituen berotzeko.

Gero 230 kilokoari heldu zion. Behin altxatuta marka egina zuen leitzarrak, baina aitzinetiko marka saioretan bezalaxe, bigarren aldi batean saiatu eta berriz ere berdindu zuen, ikus-



Inaxio Perurena, 230 kiloko harria berdintzen.

GARA

leen txalo artean. Minutu eta 55 segundu be-

har izan zituen bere lanak egiteko.

HERRI KIROLA

FLASH

Olasagasti nagusitu da Euskal Herriko Aizkolari txapelketan

Donato Larretxea azpitxapel-dun izan zen urriaren 28ko finalean

Donato Larretxea aranztarra azpitxapel-dun izan zen urriaren 28an Getxon, Euskal Herriko Aizkolari txapelketa nagusiaren finalean. Ustegabeko txapel-duna Joxe Mari Olasagasti igeldoarra izan zen. Ongi prestatua dagoenean hagitz zaila da igeldoarrari irabaztea eta hori erakutsi zuen finalean. Donatori minutu terdiko alde atera zion azkenean eta faborito ziren Pe agarikano eta Nazabal kasik hiru eta lau minutu giblean utzi zituen.



GARA

Joxe Mari Olasagasti lana akautu eta segidan, semearen besarkada jasozten. Laugarren txapela da igeldoarrantzat.

Hasieran dirua Nazabalen alde atera zen, baina lehendabiziko kanardikoetan Donato Larretxea zen aitzinetik. Denbora guttitan zulo handia egin zuen aranztarak. Bigarren kanardikoan minutu erditik goitiko abantaila zuen eta 60 ontzako lehendabiziko bi enborretan eta lehendabiziko oinbikoan mantendu egin zuen abantaila. Gibeletik, Nazabal, Pe agarikano eta Olasagasti zebiltzan postuak tartekatuz. Lan erdiatar ailegatzerakoan, ordea, bete egin zen Donato eta bertzeak gainera etorri zitzaizkion. Lan erditan Olasagasti zen aitzine-

tik, baina segundu bakar batera zuen Nazabal, zortzira Larretxea eta Pe agarikano hamabi segundura. Kontuak estu beraz. Ordu-rako azken postuan ez gelditzeko lehia bakarrik gelditzen zitzairen Senosiain eta Felix Etxeberria sunbildarrari.

LARRETXEAK HOBERA EGIN ZUEN AZKEN ENBORRETAN

Bigarren zatian goiti etorri zen Joxe Mari Olasagasti. Hirugarren oinbikoan sekulako alde atera zion gainerakoei, eta garbi ikusi zen, bu-

kaera bitarte irauten bazuen, txapela berriro ere lgeldora itzuliko zela. Larretxeak jota zirudien eta nabarmen egin zuen beheiti. Bigarren posturako Nazabal eta Pe agarikanoren arteko lehia hasi zen orduan. Olasagasti abantaila handitzen hasi zen, eta ez zuen inolako arazorik ikusten Pe a eta Nazabalekin, hauek ere bezetzen ari baitziren.

Baina Larretxeak ezustekoa emateari ekin zion, berriro ere erre-kuperatu eta hoberantz egin baitzuen. Argi zegoen azkenerako Na-

zabal Pe agarikanoren gibeletik geldituko zela eta azkenean, Donatok biak pasatu eta bigarren akautu zuen, Olasagastiren gibeletik. Meritu handiko azpitxapelketa izan da aranztararentzat, gerrietako minarekin ibili baita azkenaldian: *'Nilasai etorri naiz, ez nintzen faborito. Gerrietan arazoak izan ditut eta ez dut behar bezala entrenatu, baina us-te dut maila polita eman dudala'*. Pe a izan zen hirugarren, Nazabal laugarren, Senosiain bosgarren eta Felix Etxeberria seigarren.

Rafa Maritxalar korrikalaria nagusitu zen urriaren 28an Lakuntzako V. herri lasterketan. Lesakarrak 31 24 behar izan zituen 10 kilometroko ibilbidea osatzeko, bigarren izan zen Antonio Etxeberriak baino 20 segundu guttiago. Guzira 360 korrikalarik hartu zuen parte herri lasterketan. Aisa irabazi arren, Rafa Maritxalar ez zen gustora gelditu, erritmoari ezin eutsiz ibili baitzen. Marka onenetik urruti gelditu zen Maritxalar. Aste hondar honetan Behobia-Donostia proban parte hartu du lesakarrak, neguko denboraldiaren prestaketa gisara. Kros denboraldi ona egin eta otsailerako sasoi puntu onena hartu nahi du Maritxalarrek.

Lau terdiko txapelketa

Azaroaren lehen aste hondarrak baztandarrik gabe utzi zuen lau terdiko txapelketa. I aki Otxandorena oronoztarak 7-22 galdu zuen Armendarizen kontra eta Mikel Go ik eman zuen ustegabekorik handiena, Otaegiren kontra 15-22 galdu ondotik. Aste hondar honetan sartuko dira jokoan Inaxio Errandonea eta Asier Olaizola. Biek partida zailak izanzen dituzte. Alkaiagakoa, Patxi Ruiz eta Abel Barriola leitzararren arteko irabazlearen kontra ariko da. Barriolak aunitz sufritu zuen Berasaluze VIII gainditzeko baina Ruizen kontra aritzeko txartela lortu zuen. Goizuetarra, berriz, bere lehen partidari, Armendariz eta Belokiren arteko norgehiagokako garailearen kontra ariko da. Ez du errexa izanen!

	54	54	60	60	72	72	72	72	60	60	54	54
1. OLASAGASTI	1'09"	3'13"	5'40"	8'37"	12'42"	17'28"	22'17"	27'00"	30'20"	34'14"	36'30"	39'21"
2. LARRETXEA	1'07"	2'36"	5'10"	8'03"	12'11"	17'36"	23'54"	29'33"	33'17"	36'30"	38'30"	40'47"
3. PEÑAGARIKANO	1'17"	3'14"	5'41"	8'39"	12'54"	17'40"	22'55"	28'49"	32'47"	36'21"	38'54"	42'17"
4. NAZABAL	1'17"	3'04"	5'41"	8'47"	12'34"	17'29"	22'47"	28'28"	33'03"	37'08"	40'02"	43'12"
5. SENOSIAIN	1'23"	3'27"	6'22"	9'36"	14'41"	20'42"	27'30"	34'04"	38'44"	42'20"	45'30"	48'15"
6. ETXEBERRIA	1'22"	3'21"	6'13"	9'57"	15'02"	21'30"	27'48"	34'26"	38'43"	42'57"	45'46"	48'32"

AGENDA
 egunez
 egun

KONTZERTUAK

GOIZUETA

Azaroaren 24ean Lau Itzal, Asgarth eta Betagarri taldeak udal pilotalekuan, Gaztetxearen 10. urteurreneko ekitaldien barnean.

ELIZONDO

Azaroaren 18an Kantiruki taldea (Iparraldeko ahotsak) Arizkunenean, arratseko 8etan. 2001eko Folk Ametsetan Zikloaren barne.

BERA

Azaroaren 23an kontzertuak Beran. Arratseko 10etan Kematxe taldea Bidaxka ostatuan. 11etan Irats taldea Zizka ostatuan eta 12etan kontuz taldea Pui ostatuan.

ERAKUSKETAK

LESAKA

Azaroaren 20tik abenduaren 2ra Kepa Pikabea presoaren margo erakusketa Arrano elkartearen.

ZINEMA

LEITZA

Azaroaren 16an 22.30etan 'El C rculo' filmea.
 Azaroaren 18an 19.30etan 'El C rculo' filmea.
 Azaroaren 23an 22.30 etan 'Shrek' filmea.
 Azaroaren 25ean 22.30etan 'Shrek' filmea.
 Azaroaren 30ean 22.30etan 'Gente Pez' filmea.
 Abenduaren 1ean 19.30etan 'Gente Pez' filmea.

ANTZERKIA


BERA

Azaroaren 18an Ander Lipus-en 'Minutu bakarra' Bidaxka ostatuan arratseko 8etan. III. Kafe Antzerki Zikloaren barnean.

HERRIETAKO KONTU BITXIAK BERRIZ ERE
Herriz herri saioa azaroaren 21ean bueltatuko da TBra

Irailean denboraldi berriari ekin genionetik hainbat saio ikusi ahal izan duzue. Eguneroko albistegia, astelehenero kirol munduaren berri ematen digun Jokoa Solas eta bertzeinbat programa berexi, Kantuketan erakusketari eskeinitako bi saio berexiak edo Hego Afrikako Tygerberg abesbatzaren kontzertuenak, batzuk aipatzeagatik. Baina bada garaia, ttipi-ttapa telebistaren bertze klasiko bateri atek berriz ere idekitzeko. Herriz Herri saioari buruz ari gara noski. Heldu den astean hasiko duen denboraldi berri honetan zenbait aldaketa izanen ditu saio honek. Pantailan ikusiko ditugun aurpegiak aski ezagunak izanen dira, Joseba Olagaraiak, Enara Arroba-

rrenek, Arkaitz Mindegiak da goeneko hainbat erreportai eskeini baitigute beraien herriko kontuen berri ematen. Eta hain zuzen horixe izanen da aurtengo desberdintasunetako bat, beraien herrietan gertatzen denaz gain, bertze herrietara eginen baitute salto, ahal eta gai eta kontu gehien erakusteko asmotan. Honela, herri guziet izanen dute tokia herriz herri saioan, beraz zoezer kontatzeko edo erakusteko baldin baduzu deitu ttipi-ttapara. Bertze aldaketa, egunarena izanen da, orain asteazkenetan izanen baita herriz herri. Gure programazioaren errepikapenek ere aldaketak izanen dituzte. Arratsaldeko 5etako errepikapena, 3,30etan eginen da.



'Errepideak ez ditut maite'

Onddo
 GAZTELUPEKO HOTSAK

Onddo talde beratarren diska berria salgai dago jadanik. Joseba Irazokiren taldeak euskal pop berriaren doinuak jorratu ditu, musika laisaietatik hasita, beste-tako musikaraino. 10 kantuz osaturik dago 'Errepideak ez ditut maite' izenburuko diska: 'Japoniar neska', 'Oker', 'Jeloskor', 'Luzaroan zu gabe', 'Dutxan edo ohatzean', 'Beldurra arnastu', 'Belarriak bero', 'Gau txoria', 'Kutsatuta' eta diskari izenburua ematen diona. Abestien musika eta hitzak Joseba Irazokik berak egin ditu. Igo Telletxeak baxua eta tronpetak jo ditu, Igor Telletxeak Bateria, Ibai Gogorzak saxofoia eta perkusioa, Mikel Zubietak saxofoia eta Aratz Uriak bibolina jo du. Gaztelupeko Hotsak zigiluak diska ekoiztu du. Bortzirietako taldearen lehendabiziko diska da hau.

BASERRIA DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urriaren 19tik 26rako prezioak)

<p>ZERRIKIA </p> <p>Zerrikumea (19 kilo): 3.900 pta.</p> <p>Zerri gizena (95-100): 168,5 pta/k.</p> <p>Zerramak: 109/111 pta./kiloa, bizirik.</p>	<p>BEHIKIA </p> <p>Aretze gizenak: Idixkoak: Pta/kg. Kanal Extra 540 1.koa 520 2.koa 500 Urruxak: Pta/kg. Kanal Extra 550 1.koa 530 2.koa 510</p>	<p>Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.</p> <p>Aretze tikiak (15 egun ingurukoak): Nabarrak: urruxak 36.000 eta idixkoak 29.000 Pta.</p>	<p>Mestizoak: urruxak 36.000 eta idixkoak 34.000 Pta.</p> <p>Zaldikoak: Pta/k Sortuberriak: 510/520 Zaldi-behorrak: 330/340</p> <p>Bildotsak: Pta/k 6-8 kilokoak: 1.375-1.425 8-10 kilokoak: 1.250-1.300</p>
---	---	--	---

JAKIN BEHARREKOAK



Haurrak jotzea ez da hezitzea

Gaizki portatu den haurrari gurasoek zartakoa ematen diotenean arrunta iruditzen zaigu. Gizartearen zati handi batek uste du garaiz emandako zartako batek gauza aunitz konpontzen dituela. Baina jotzea ez da hezitzea. Haurrak "hori ez duela egin behar" jakin dezan modu eraginkorragoak daude, arazoa da ez direla zartakoa eman bezain erraza. Askok azalpenak eta arrazoiak eman baino zaplastekoa ematea nahiago dute.

Zigor fisikoaren ondorioak:
-Haurraren ekimenak etetea.
-Zirgorraren beldur badira ez dira saiitzen gauza berriak

«Hezkuntzan arras inportantea da arauak eta mugak zehaztea, baina beti arrazoituak izan beharko dute.»

probatzen, sormena murriztuz.
-Haurrek biolentzia gauzak lortzeko erabilgarria dela ikasten dute.
-Haurrak autonomia galtzen du eta gurasoen menpeko bihurtzen da.
Guzti honek ez du erran nahi haurrari edozein gauza egiten utzi behar zaionik. Hezkuntzan arras inportantea da arauak eta mugak zehaztea,

baina arau hauek arrazoituak izan beharko dute.

Gurasoen betebeharrak:

- Muga argi eta zentzuzkoak ezartzea.
- Seme-alabekin denbora gehiago egon.
- Haurraren izakera errespetatu.
- Bere iritziak kontuan hartu.
- Ekintzen gaineko erantzunkizuna izaten erakutsi.
- Azaldu gauzen zergatia.
- Gurasoek ulertu behar dute haurrari joz ez dela deus ere lortzen. Hezitzea balore batzuk eta erresponsabilitate batzuk erakustea da.

Rakel Amigo
Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak

LIBURUAK



Euskal alfabetoa iruditan

Patricia Martinon

Gatuzain

Gatu Berdeak, Gatuzain argitaletxearen haur sailak, bi liburur aurkeztu ditu "hiru urtetik gorako haurrendako": Euskal Alfabetoa Iruditan eta Puxka. Lehen liburua, izenak nabarmenki adierazten duen gisara, "alfabeto" bat da, hitzari datzekion marrazki batez lagundurik. Alfabetoa osatzeko metodologiari doakionez, Ipar Euskal Herriko euskara batutik abiatu dira. Horrela hizki bati hiru sail erantsi dizkiote, gauza, animalia eta Euskal Herria zentzu

zabalean hunkitzen duen kontzeptu bat, mitologia, ohitura... Hitzak hautatu ondoren, Lontxo Iriarte marrazkilararengana jo eta hark ilustrazio lanak egin dizkio liburuari. Liburua "koloretsua" da, azal gogorak ditu, marrazkiak alaiak dira eta kalitatekoak, erakargarriak. Hizkuntzari dagokionez Ipar Euskal Herriko hitzak dira erreferentzia nagusia. Gatuzainek 1.000 ale argitaratu ditu eta 70 liberan (1.700 pezeta) dira salgai.

AGENDA egunez egun

SOLASALDIAK

ETXALAR

Azaroaren 19an "Euskara Europan" mintzaldia eskainiko du Koldo Gorostiaga europarlamentariak.

BERA

Azaroaren 20an "Euskaldunak munduan" mintzaldia eskainiko dute Fermin Munarriz eta Martin Garitano kazetariak.

AZKAIN

Azaroaren 22an euskararen egoera Nafarroan aztertuko du Andres I igo euskaltzainak.

SARA

Azaroaren 27an euskararen osasunari buruz solasean ariko da Koldo Zuazo erakaslea.

LESAKA

Azaroaren 23an "Euskararen historia eta gaur egungo egoera Nafarroan" solasaldia eskainiko du Erlantz Urtasun historialariak Arranon, 19:30etan.

BERA

Azaroaren 16an Historiak Nafarroan Literaturan eman duena solasaldia Joxe Miguel Bidador-en eskutik lamotenean, 18:30etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Azaroaren 12tik 18ra

Arantza, NARBARTe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

Azaroaren 19tik 25era

Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leizta eta Goizueta.

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra

Etxalar, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzu berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/lgeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai Legia, 53 - 3. ☎ 696 753 366.

BERA. Pisua salgai San Esteban karrikan. ☎ 948 630 196

BERA. Pisua salgai Kanttonberri karrikan. ☎ 948 630 413

BERA. Pisua salgai San Esteban karrikan, trastero eta garajearekin. ☎ 626 097 128

DONOSTIA. Amara Berrin, 70m²ko apartamendu berri zuztua salgai. 42 milioi. ☎

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

SUNBILLA:

Azken 3 etxe elkar atxikiak

ITUREN:

Laister eginen diren 4 elkar atxikiak salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

BERA: Eztegara Pas. lehenengo pisu bat salgai, 4 logela, egongela, sukalde, 2 komuna, ganbara, bi balkoi. Prezio interesgarria. ☎ 607 97 86 56

625 708 901

IGANTZI. Pisua, garajea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845

ZIGA. Etxe polita salgai. Bizitzaren jartzeko prest. ☎ 948 581 487 • 658 994 809

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

Etxea edo baserria erosi edo errentan hartuko nuke. Bajera badu hobe. Zaharra bada berdin dio,

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

ELIZONDO-ELBETE. irakasle batek pertsona bat behar du (irakasle edota langilea) pisua osatzeko. ☎ 656 751036 (gauez) edo 943 751036 (mezua uzteko).

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

DONEZTEBE. Aparanen 75 m²ko nabe pabilioia salgai, 55m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

BERA. 20m²ko bajera, pelukeria izandakoa salgai Agerra auzoan. ☎ 948 599 158.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491

BERA. Telefonica etxe azpian garajea errentan eman nahi da. ☎ 948 631 033 (arratsaldeko 8etatik aitzin).

BERA. 500 m²ko pabilioi industrialera errentan ematen da. ☎ 667 538 041

LEITZA. Oialde Taberna-Jatetxea alokatzen da. ☎ 948 610 819 • 948 510 417 (arratsaldeko 2etatik 3etara, azaroaren 10a arte).

GARAJEAK/LOKALAK

111 Bertzelakoak

NOAIN. Harategi modernoa traspasatzen da, bezero aunitzekin, ezin dugulako atenditu. ☎ 948 630 054 • 620 107 359

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

ALKAIAGA. 2.400 m²ko lur eremua salgai. ☎ 667 538 041

LANA

301 Eskariak

Bera, Etxalar edo Lesakan haurrak zainduko nituzke. ☎ 605 750 966

LANA

302 Eskaintzak

IRUÑEA. Pasta-denda bateko obradorean lan egiteko neska bat behar da. ☎ 948 220 618

LEITZA. Torrea Herriko Ta-

ARANTZA ZYRGINDEGIÀ

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA



Etxe eta baserrien zaharberritze obrak
Pareten zartadurak,
barneko lanak...

Plazaola Poligonoa, A-6-7-8 eta 9
31195 AIZOAIN (Nafarroa)
Tfnoa.: 659 960605

bernan sukaldaria behar da. ☎ 948 610 909

DONEZTEBE. Jostungintza industrialeko kooperatiba emakume esperientziadunak behar dira. ☎ 670 560 361.

IRUÑEA. Sagardotegian lanean aritzeko zerbitzari eskualduna (neska edo mutila)



manelsa S.L.

elektrizitate industrial

Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

AINHOA ARBURUA
Psikologo Klinikoa
 Kolegiatu zenbakia 781
Antsietatea, depresioa, anorexia, bulimia, bikote arazoak etab.
 948 630 258

eta sukaldaria behar dira.

GANIX
Tailerrak
 Iturriandeta, 9 • 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BOAN
TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 948 63 06 23 • BERA

BAZTAN MOTOR
 948 452 119 ¥ IRURITA
 Bigarren eskuko kotxe garantizatuak:
 Mondeo TD, Fiesta XR2 inyecc., Berlingo 1.9 D Combi, Nissan Micra 3 ate, Fiesta 1.4 3 ate, Suzuki Vitara 1.6 3 ate, Orion 1600 gasolina...

MENDAUR MOTOR
 948 450333 • DONEZTEBE
 Bigarren eskuko kotxeak:
 Daiatsu Feroza 4x4, Defender, Mitsubishi 3 ate, Opel Frontera TDI, ZX haize egokituaekin.
 SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

948 125 401 • 686 561 525.

MOTORRA
501 Salerosketak
BMW520 inyeccion, 24v, ko-txea salgai. NA-AY. 948 677 028 024

Piaggio ZIP moto berria salgai. 49cc. 948 450 624
Nissan Micra ia berria salgai. 4.000 km. 1.100.000 pe-zeta. 948 580 128
Citroen XSara 2.0, 16V salgai. NA-2179-AZ. Extrak. 948 635 186

Peugeot 605 SRI salgai. 750.000 km. 948 630 280
Mitsubishi L300 furgoneta salgai. NA-AT 56.000 km. Oso egoera onean dago. 606 337 427

ANIMALIAK
602 Salerosketak
Fox Terrier arrazako za-kurkumeak salgai. 20.000 pezeta. 948 452 145

Bi mendi-behi euren pape-rekin salgai. 948 510 277
Zerrama bat hiltzeko salgai. 948 627 557

DENETARIK
702 Salerosketak
Bizikleta estatikoa erosiko



Eskelak eta urtemugak
ttipi-ttapa
aldizkarian eta
telebistan
 **948 63 11 88**

nuke. 620 076 102
 Negozioa uzten dugulako, 2 besotako **kafetera salgai**, moliñilloa opari. **Kaja registradora** eurora egokitua eta edarientzako, altzairu herdoilgaitzeko, **bikamara hozkailu** salgai. Guztia berria. 948 450 491

Haritz Amerikar egur idorra salgai. 40-50 cmtan moz-tua 15-20 Tn. 616 055 371 (eguerditan edo gauez)
Kaja registradora, euroe-tara egokitua salgai. Prezio ona. 948 580 939
Egurrezko sukaldea erosi nahi da. (Kalefaktorea den

ala ez berdin dio). 948 387 065

DENETARIK
703 Bertzelakoak
BERA.Taxi Plaza esku al-datzen da. 948 630 629

ARTEKARI
TALDEA
 ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
 • Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
 • Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
 Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
 ARTEKARI, S.L., 948133328•133346. Faxe: 948133713
 Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ✦ Langile Autonomoak
- ✦ Nekazariak eta mendi-langileak
- ✦ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✦ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✦ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✦ Diru-laguntza ezberdinak
- ✦ Kontabilitateak
- ✦ IVA eta IRPF
- ✦ Errenta aitortpenak
- ✦ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ✦ Bideragarritasun planak

BELARRA
 OSTATUA - JATETXEA
 Amezitia karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 45 03 06

GAZTANDEGIA
LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.



ANDI lesakarra azaroaren 16an 3 urte bete zituen. Zorionak familiaren partetik, bereziki atta, ama eta Vanessa.



JULEN ARANBURU MITXELENA aurtizlarrak 5 urte bete ditu azaroaren 11n. Zorionak atta, ama, anaia I aki eta familiaren partetik.



UXUE MATXIENENA MARI-ENZURRENAK 3 urte beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak Urrotz eta Eratsungo familiaren partetik.



MARI JOSE GARCIA lesakarrak azaroaren 8an urteak bete ditu. Zorionak familiaren partetik. Egun ona pasa!



NAGORE INDAKOETXEA lesakarrak 17 urte bete zituen urriaren 18an. Ea noiz gonbidatzen diguzun txanpain botilara, oraindik zain gaude! Lagunak.



SAIOA ZELAIETA LAZKANOK beratarrek urtea bete du azaroaren 30ean. Aunitz urtez attatto eta amattoren partetik.



FELIXEK ETA IKERREK azaroaren 10 eta 16an urteak beteko dituzte. Zorionak! Zuen afariaren zai gaude.



MAIXUSEK urteak beteko ditu azaroaren 24an. Ongi pasa eta muxu asko. Clan estaci n.



SAIOA ZOZAI FERNANDEZ azaroaren 28an urtea beteko du. Zorionak atta eta amaren partetik.



ILUNE CAMBRA RODRIGUEZ 6 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak aitaxo, amatxo eta Lesaka eta Irungo familiaren partetik



AIMAR ZAMORANO DUARTE lesakarrak urtea beteko du azaroaren 29an. Zorionak aita, ama eta Unairen partetik.



SAIOA ZELAIETA LAZKANOK urtea beteko du azaroaren 30ean. Zorionak ponpoxa Oierren partetik.



JOAR TAINTA lesakarrak azaroaren 12an 9 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik.



ARITZTA FERNANDEZ KREBIYEN zigaurrearrak laster urtea beteko du. Zorionak aita, amatxi eta aitaxiren partetik, potxolo eta polite.



UNAI ALTZURGUREN ARREGIK 6 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak eta muxu haundi bat Maitane, Elene eta gurasoen partetik.



MABEL ETA BEATEK azaroaren 19 eta 24an urteak beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



AINHOA GARTZIARENA HUALDE doneztebarrak azaroaren 10ean 5 urte bete ditu. Zorionak reina, familiaren partetik.



Santiago de Chileko **ANEL LARRAINZAR UBIRIAK** 5 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat zuretzako Lesakako familiaren partetik.



OSCAR ELORZA SALABERRIK urtea bete du azaroaren 14ean. Anitz urtez korrikalari Doneztebeko lagunaren partetik.

2002ko telefono gida prestatzen ari gara

Partikularren telefonoak eta merkataritza eta ofizialeenak

Zure datuak

zuzentzeko

edo

publizitatea

kontratatzeko,

deitu

948 63 11 88

telefonora



Zeramika eta bainuen erakusketarik ikusgarriena



alkain
Euskal Herriko
preziorik hobereak
Auzola-erria: 9:30 - 12:30 / 14:30 - 19:30
Larunak: 9:30 - 12:30

alkain
zeramikak eta bainuak
IRUN eta HONDARRIBIA artean
(aeroportu ondoan) Mendeku Poligonoa
Tfnoa: 943 64 52 54 / Faxa: 943 64 58 55

MUEBLES A METS

Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537 • Fax. 948 631 443




Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak



4.000 m²ko
erakusketa
mobleak
ikusteko



Larunbat arratsaldetan irekia



Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
 Tfnoa.: 948 45 32 59
 Faxa: 948 45 34 23
 e-Posta: betikopvc@teleline.es

Zertarako hotza pasa, soluzioa dagoenean

BETIKOn era guzietako itxierak egiten ditugu, kolore
diferentetan, baita haritz, pinu, kaoba, etab. ere.

4 arrazoi on PVC jartzeko



ISOLAMENDUA



MANTENU ERREXA



HERMETIKOTASUNA



IRAUNKORTASUNA

Zaharberritzeak
obrarik gabe

Aluminio eta
PVC
zurgindegia

Fabrikanteak
garenez
preziorik
onenak
eskaintzen
ditugu

Estalpe irekia



Estalpe itxia



Zure behar guzietara egokitzen gara



Ateak



Portxeak



Leihoak



Deceuninck markaren perfilak
kalitaterik handienekoak dira,
Aenor eta NFren zertifikatuarekin,
bertzeak bertze.



15 urteko
garantia.

Eskatu aurrekontua loturarik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu